



urtekaria

anboto
2014



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa

Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Zorionak!!



AUZOLANAREN ESKU DAGO

2014ko errebasoa egitean irudi bat datorkit burura, bes-teen gaintik argi bereizten dena. Durangoko Landako Gunearen parean eskutik heldu dio herritar batek beste bati, honek beste bati, harek hurrengoari... Katea Iruñeraino ailegatu da. Ekainaren 8an gertatu zen, eta Euskal Herrian ezagututako mobilizazio indartsuena eta esan- guratsuenaren izan zen. “Gure Esku Dago!”, aldarrikatu zuten ia 200.000 lagunek, Euskal Herriaren etorkizunaz iritzia eman gura dutela adierazteko. Dena zen emozioa, dena alaitasuna, dena partaidetza. Auzolanaren itzelezko ariketa praktikoa. Ikusi beharko da eskaera horrek hartzailek ote duen, baina egun hura, behintzat, hainbaten memorian gordeta geratuko da; gatazka irudiak iltzatuta dauzkan herri honen memorian ere bai.

Euskal Herrian aspalditik ezagutzen den auzolanaren eredu izan zen erabakitze eskubidearen aldeko giza katea. Baina ez da aurtengo adibide bakarra. Izan ere, herritarren ekarpenekin proiektuak aurrera ateratzeari *crowdfunding* deitzen zaion garaioetan, bata bestearen atzetik etorri dira auzolanerako deiak. Kontraesana dirudien arren, krisi sasoiaren norberak beretik emateko filosofia indartu da –diru-laguntza ezak ere ekarri du kontraesan hori–. Hor dugu, esaterako, hamar urte bete dituen Plateruena kulturagune herritarrek egindako gogoeta parte-hartzailea, eta abendu honetan amaitu berri duen diru ekarpen eta borondatezko lan kanpaina ere bai. 250.000 euroko zorra herritarren laguntzagaz kitatzea ez da erronka makala! Hori guztia, euskararen eta kulturaren arnagune den antzokia urte askoan bizi dadin, eta bizi dezagun. Euskararen aldeko ekintzekin jarraituz, Durangoko Txosna Batzordekoek jaietako etekinaren zati bat Ziburuko Kaskarotenea ikastolari eman diote.

Kultur arloan, zenbait sortzailearen gonbidapenak ere heldu zaizkigu, Eñaut Aiertzaguenaren eta Mikel Onandiarrenaren kasu, euren proiektu kulturalak, diruz babestuta, errealitate bihurtzeko.

Egoera ekonomikoaren erruz, edozelan ere, eman beharrean jasotzeko urgentzia dute batzuek. Euren laguntzen neurtu ezin den esfortzua egiten dute, auzolanean, JAED, Zornotza Comparte eta Caritas elkarteek. Atera kontuak: JAEDen eta Caritasen artean Durangaldeko 619 herritarri lagundu zieten 2013an. Gainera, atzerrian arazoak dauzkatenen alde ere eten barik ibili dira Bateginez eta Kainabera elkarteak.

Bestetik, abendu honetan tinta gorritz etorri da albistea Abadiñotik, eta mugimendu feministek gizarte osoari larrialdi deia egin diote, indarkeria matxistagaz amaitzeko. Gai sozialetan legez, politikoetan ere gero eta inplikazio handiagoa proposatzen dute eragileek. Aurten jaio da, adibidez, euskal presoan sakabanaketagaz amaitzeko erronka bota duen Sare herritarra. Otsailean espetxe politika hori desagertzeko aldarria ozen entzun zen, Arkaitz Bellon preso elorriarra bere zeldan, etxetik ehunka kilometroa, hilik agertu zenean. Zori hobez, iheslariak etxera itzultzen hasi dira aurten.

Eta ANBOTON? Bada, gero eta lagun gehiago gara. *Anbotolagunak* kanpainagaz Durangaldeko euskara hutsezko hedabide bakarrarentzat bultzada eskatu dugu. Kalitatezko astekaria eta webgunea lantzen saiatzen gara, Durangaldeko etxeetan informazioa euskaraz jasotzeko. Arduraz pentsatzen ditugun berbak mimoz idazten ditugu ordenagailuz, eta, inprentako labetik pasa ostean, berotasunez heltzen dira zuen etxeetara, hainbat banatzailearen eskutik. Hori da gure katea, euskaldunen komunitatea jostea helburu duena.

Esango nuke maite eta beharrezko dugunaren alde egi- tea inbertsio pertsonala ere badela, gero bueltan jasoko duguna diruz zenbatu ezinezkoa delako. Beraz, eskerrik asko irakurle guztioi proiektu honen parte izatearren, eta 2015 ederra eduki dezazuela. Urte berriagaz badatoz Korrika 19, Durangoko Azokaren 50. edizioa... Badugu auzolana!

Markel Onaindia (ANBOTOkoko kazetaria)

4 URTARRILA

8 OTSAILA

12 MARTXOA

16 APIRILA

20 MAIATZA

24 EKAINA

28 UZTAILA

32 ABUZTUA

34 IRAILA

38 URRIA

42 AZAROA

46 ABENDUA



Herriko nagusiak elkarrizketatu ditu Ahotsak proiektuak

24 pertsona elkarrizketatu dituzte, herriko hizkera eta ohiturak erregistratuta gelditu daitezzen

▣ **Herririk herri** - MAÑARIA

> **Ahotsak.** Mañariko Ahotsak proiektuak herriko euskara eta bizi ohiturak artxibatu gura izan zituzten, ondare hori gerora galdu ez dadin. Honela azaldu zuten urtarrilean Ainara Areitio zinegotziak: “Beharrezkoa zen jende nagusiaren istorioak gordetzea”. 24 pertsona nagusik eurek bizitakoak kontatu zituzten grabagailuaren eta kameraren aurrean. Proiektua martxan jartzeko lehenengo urratsak Igone Ikobaltzetak eta Maria

Luisa González de Audikanak eman zituzten 2007. urtean. Herrian antolatutako ibilaldi batean, berbetan ibili ziren zenbait auzotarregaz, eta konturatu ziren nagusien ekarpenak interesgarriak izan ahal zirela herria hobeto ezagutzeko. Ideia horretatik abiatuta, bospasei elkarrizketa egin zituzten, eta duela hiru urte ipini zen martxan bigarren atala. Ahotsak egitasmoaren arduradunek lanagaz jarraitzeko asmoa agertu zuten.

Urtarrilaren 5ean, egitasmoaren jendaurreko aurkezpena egin zuten Mañariko udaletxean. Elkarrizketatuak eta ekimenaren bultzatzaileak bertan izan ziren: www.ahotsak.com webgunean daude ikusgai Mañarian egindako elkarrizketak, bideo edo testu formatuan. Pasadizo ugari topatu daitezke bertan: gerra sasoikoak, txikitako bizipenak, eta lehenengo Mañariari buruzkoak, adibidez.



‘Con los pies en las nubes’ musikala

▣ **Kultura** - DURANGO

> **Estreinaldia.** *Con los pies en las nubes* musikalaren estreinaldiak Durangaldeko sortzaileen ordezkari zabala bildu zuten urtarrilean. L’Atelier eskolako dantzariak, La Papa taldeko antzerkigileak, proiektu honetara batu zitzaizkien diziplina askotako artistak eta Jon Kepa Garro zinegotziak prentsaurrekoan aurkeztu zuten proiektua. Roberto Oviedo pianistak zuzenean jo zuen Jon Ugarrizak ikuskizun honetarako propio sortutako musika. Oihane Azkonizaga L’Atelierreko arduradunak azaldu zuenez, “denon energiak batuta, honen antzeko lan ederak egitea posible dela frogatu dugu”.

Trafikoa da airearen kutsadura iturri nagusia

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **Ingurumena.** Durangaldeko Amankomunazgoak prentsaurrekoa eskaini zuten urtarrilean, eskualdeko airearen kalitatearen inguruan egindako azterketaren emaitzak ezagutarazteko. 2006an egindako neurketa baten ostean, “alarma piztu” zela aitortu zuen Ander Areitioaurtena Azterlaneko teknikariak. Urteotan egindako ikerketen eta hartutako neurrien ondorioz, industriak sortutako kutsadura jaitsi egin dela azaldu zuten. Azterketetako datuen arabera, trafikoa da, gaur egun, airearen kutsadura iturri nagusia. Ibilgailu kopuruaz gainera, abiadura maila ere aztertu zuten.



Erralderen zorra bankuekin negoziatzen

▣ **Herririk herri** - ABADIÑO

> **Erralde.** Erralde hiltegia gauzatzeko sozietatea sortu zutenean eskaturiko kredituaren ordainketa zelan egin negoziatzea erabaki zuen Abadiñoko Udalak. Sozietatean eduki zuen partearen arabera, eta 2013an Erralderen likidazioa abiatuta, 400.000 euroko zorra zuten urtarrilean udalak. Jose Luis Navarro alkateak kreditua ez zuela ordainduko esan arren, aholkulariekin egoera aztertu ostean, zorra onartu, eta ordainketa era negoziatu besterik ez zutela azaldu zuen. Erralde sozietatearen akziodun nagusia zen Abadiñoko Udala. Gainera, kreditua eskatu zuen, gainontzeko udalekin Berrizen hiltegi berria eraikitzeko lurak erosteko.



Aita Zavalaren lanekin jarraitzeko elkarte

Berbaz - DURANGO

> **Elkartegintza.** Vicente Zavala zenaren izenagaz elkarte sortu dute hainbat durangarrek. Abadeak Durangoko historia eta ohiturak aztertu, eta liburuxkak atera zituen Kurutzeaga bilduman.

Asen Lavin piropo lehiaketaren irabazle

Akuiua - ABADIÑO

> **Lehiaketa.** “Zu ilgora, ni ilbehera, eta biok batera ilargi bete” esaldiagaz Asen Lavinek irabazi du Barrizten kultur elkarteak antolatutako piropo lehiaketa. Euskara ikasteko modu bat izan dela dio Lavinek.



Atzerrira lanera joandako gazteen esperientziak

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Lana.** Enpresetara ehunka curriculum bidali eta makina bat elkarrizketa egin arren, erantzunik ez jasotzea egunero ogia da gazte askorentzat. Hezkuntza zikloa amaitu ostean, gehienek goi eta erdi mailako ikasketak dituzte. Euskal Herrian atekak itxita topatzeaz nekatuta, atzerrira joatea erabakitzen dute askok. Lana atzerrian topatu duten Durangaldeko lau gazteren esperientziak jaso zituen ANBOTOk urte hasieran. Sasoi hartan, Eider Badiola (Iurreta, 27 urte) Britainia Handian topatu genuen. David Mínguez (Durango, 32 urte) Danimarka eta Nigeria artean zebilen lanean. Gorka Olaso (Durango, 25 urte) Alemania aldera joana zen lanera. Olatz Bizkarralegorra (Durango, 26 urte), berriz, Parisko ospitale batean praktikak egiten zebilen.

“Lanak gizarte justuago bat eraiki dezake”

Berbaz - DURANGO

> **Finantza etikoa.** Finantza etikoko kooperatiba da Koop57. Egitasmo horretako kide da Liher González durangarra. Herrialde Katalanetan sortu zen ekimena, proiektu kolektiboak maileguak emateko, eta Euskal Herrian ere hasi dira egitasmoa zabal-tzen.



Barrutieta eta Murray Olinpiar Jokoei begira

Kirola - DURANGO

> **Errugbia.** Joana Murray eta Uribarri Barrutieta Durango Rugby Taldeko kideak dira. Olinpiar Jokoei begira jokalariek trebatzeko Euskadiko Errugbi Federakundearen teknifikazio proiektuan daude biak. 2016ko Brasilgo eta 2020ko Japoniako Olinpiar Jokoak dituzte helburu.



Une oro, egunero, hilero, urtero... gero eta jende gehiago igotzen da. EROSKI Hipermerkatuetako karrora.

EROSKI Hipermerkatuak, zurekin.



aurten ere
aurreztu gurekin



EROSKI

ABADIÑO

zurekin



Pradera eta Etxaniz, txapeldunak

☑ **Kirola** - MALLABIA

> **Paleta goma.** Elkar oso ondo hartzen duen bikotea osatzen dute Itsaso Pradera mallabiarrak eta Leire Etxaniz etxebarritarak. Iazko udan hasi ziren elkarrekin jokatzeko, eta, harrezkero, txapelketa bi irabazi dituzte: Bizkaiko Txapelketa eta Kluben Arteko Euskal Herriko Txapelketa. Praderak ibilbide luzea eta oparoa darama paleta goman. Etxaniz berriagoa da modalitate honetan, eta paleta goman hasi aurretik esku pilotan eta futboleko aritu izan da. “Ondo konpontzen gara, eta partiduetan el-

karri laguntzen diogu: gure taktika zein den gogoratu, elkarri animoak eman... Pozik gabilta elkarrekin”, azaldu dute Praderak eta Etxanizek.

Zaletasuna Mallabian

Goi mailako paleta goma jokalaria izateaz gainera, Itsaso Pradera nesken paleta goma taldeko entrenatzailea ere bada Mallabian. 2008an sortu zuten taldea, eta gaur egun 23 neska dabilta. “Oso pozgarria da hainbeste neska paleta goman dabiltzala ikustea”.



Olaketako jaietan, azokako protagonistak

☑ **Akuilua** - BERRIZ

> **Azoka.** Miren Intxaurreaga, Mari Argoitia eta Juanita Bastida Berrizko baserriarren erakusketako partaideak dira. Baserriar bakoitzak etxeko onena eraman, eta dena batera ipintzen dute saltzen. Duela 33 urte hasi ziren erakusketa antolatzen, eta urte askoan hartu dute parte.



Himalayako erronkaren inguruko berbaldia

☑ **Kirola** - DURANGO

> **Eskalada.** Himalayan, Kinnaur Valley haranean egindako eskalada izan zuen berbaigai Silvia Vidal eskalatzaile katalanak Plateruenean, urtarrilean. Aurretik igo bako horma berak bakarrik igo zuen.

“Txikitatik asko kostatu zait zapatak topatzea”

☑ **Akuilua** - DURANGO

> **Oihane Lejarreta.** Wandel zapata marka sortu du Oihane Lejarreta elorriarrak. Zapatak eskuz egin ahal dituela etorri zitzaion behin burura, eta ilusioz dabil zapatagintzan. Internetez eta hainbat dendatan saltzen ditu oinetakoak eta poltsak. Bestalde, Lejarreta eszenografoa ere bada, eta Euskal Dendan stand onenaren saria irabazi zuen iazko azokan. “Nire stand horrela prestatu nuen katalogoa horrelakoa zelako, ez nekien saririk zegoenik ere, eta pozik nago”, azaldu zuen artisauek.



Berrizko desafioa ipuin bihurtuta

☑ **Akuilua** - BERRIZ

> **Desafioa.** Berrizen 1963ko San Antonio jaietan gertatutakoa ipuinera eraman du Fernando Torrecilla diseinatzaile grafikoak. Urte horretan, Eduardo Urzelai berriztarrak zirkuko elefante bat eraman zuen probalekura idiekin lehiatzera.



Egoitz Lopez de Lacalle otxandiarra atxilotu dute

☑ **Herririk herri** - OTXANDIO

> **Atxilotketa.** Egoitz Lopez de Lacalle otxandiarra atxilotu zuen Guardia Zibilak urtarrean, Auzitegi Nazionalaren aginduz, preso kolektiboaren bitartekariaren kontrako operazioan. Testuinguru berezian gertatu zen, preso ohien agerraldiaren ostean, eta Tantzaz Tanta ekimenaren manifestazioaren aurretik.



Aterpetxea zabalik Tabirako Errotagainan

Herririk herri - DURANGO

> **Gizarte-laguntza.** Tabirako Errotagaina aterpetxea etxebakoentzako babesleku da neguan. Eguraldi hotz eta hezearen etorreragaz kalean bizi diren baldintzek okerrera egiten dute, eta Ibaizabal koope-

ratibaren ostatuan Amankomunazgoak eskaintzen duen zerbitzua lagungarri zaie. Lo egiteko lekua, dutxa, afaria eta gosaria ematen dizkiete. Zerbitzua garatzeko 18.000 euroko aurrekontua izan du aurten Amankomunazgoak. Diru horregaz Errotagaina aterpetxeko gela bat alokatu du hamar etxebakorentzat. Joan zen azaroan abiatu zuten zerbitzua.

Esperientzia Institutuan eskolak ematen

Berbaz - DURANGO

> **Ikasketak.** 55 urtetik gorako hainbat lagunek *Gaur eguneko munduan bizitzeko gakoak* ikastaroa egin dute Behargintzan. Irakasleetako bat Josu Novo psikologoa izan dute. "Nik azalpenak eman ditzaket, baina oinarrizkoena ikasleen bizi esperientzia da", adierazi du Novok.



Lokalen ordenantzarako iritziak eskatu ditu udalak

Herririk herri - DURANGO

> **Gazteak.** Gazteen lokalen erabilera arautzeko ordenantza idazteko asmoa azaldu zuen udalak, eta, horretarako, erabiltzaileen iritzia eskatzeko ekimena jarri zuen martxan urtarrilean. Udalaren arabera, 60 lokal daude Durangon. Webgune bat zabaldu zuen udalak iritzi horiek jasotzeko.

Ingurumena ardatz Berdeago Azokan

Herririk herri - DURANGO

> **Ingurumena.** Ingurumen Iraunkortasunaren Euskal Azoka egin zuten urtarrilean. Berdeago izenagaz ezagunago, aurreko urtean sortu zuten ekimena Mondragon Unibertsitateko bost ikaslek. Bigarren edizioan azoka sendotzea izan zuten helburu. Egitarau luzea prestatu zuten, ingurumena ardatz hartuta. Batetik, arloagaz zerikusia daukaten enpresek euren produktuak eta zerbitzuak erakutsi zituzten. Bestetik, berbaldiak eta tailerrak antolatu zituzten. 50 enpresak parte hartu zuten urtarrileko azokan, aurreko edizioan baino heren batek gehiagok. Zortzi berbaldi eta zazpi tailer prestatu zituzten gaiaren inguruan. Besteak beste, argiaren faktura ulertzen ikasteko tailerra jarri zuten martxan.



Etorkizuna koloreztatzen

Irakasleon Kooperatiba
San Antonio Santa Rita Ikastetxea

Balbino Garitaonaindia 3, DURANGO / T.94 681 67 76 F.94 681 41 61
www.sanantonio-santarita.com / ikastetxea@sanantonio-santarita.com



Mobilizazioak Arkaitz Bellon presoaren heriotzagatik

Hilik topatu zuten Puertoko kartzelan; senitartekoek diotenez, Bellonen heriotza espetxe politikaren ondorio da

Herririk herri - ELORRIO

> **Mobilizazioak.** Arkaitz Bellon preso elorriarra hilik aurkitu zuten otsailaren 5ean, Puertoko (Cádiz, Espainia) kartzelan. Bertsio ofizialaren arabera, kausa naturalengatik hil zen 36 urteko preso. Bellonen senideek eta lagunek prentsaurrekoa eman zuten Elorrion, autopsia egin zion konfiantzazko medikuagaz batera. Azaldu zutenenez, Bellonen heriotza espetxe politikaren ondorioz gertatu zen. Miren Arana medikua egon zen bi-

garren autopsian. “Heriotza bihotz jatorriko biriketako edema arin batek ekarri zuen”, azaldu zuen medikuak. Hala ere, Aranak gaineratu zuenez, “kartzelako baldintzek ez dute sekula presoaren osasunaren alde egiten”.

Bellonen heriotzaren aurrean, Euskal Herriko hainbat gizarte eragilek, EH Bilduk, LABek, EHNEk eta Esaitak, adibidez, sakabanaketaren kontrako mobilizazioetara deitu zuten.

Presoen egoera

Ekainean Etxerateg azaldu zuenez, Oier Andueza preso durangarra jipoitu zuten kartzelan. Hilabete berean, Eneko Zarrabeitia preso abadiñarra aske utzi zuten Soto del Real kartzelan, epaiketaren zain, Frantziako kartzelatan zazpi urteko kondena bete ostean. Egoitz López de Lacalle otxandiarra, berriz, urtarrilean atxilotu zuten presoaren kolektiboaren bitartekarien kontrako operazioan.



Garuneko paralisia duen gazte bat bakartu dute


Herririk herri - DURANGO

> **Gertaera.** Frai Juan Zumarraga institutuko irakasle batek garuneko paralisia daukan gazte bat aulkira lotu, irauli, eta gela huts batean bakartu zuen. Geu Be elkarteak eta gaztearen gurasoek gertaera salatu zuten. Irakasleak bere zigorra bete zuen, eta otsailaren 13an beharrera bueltatu zen, ikasleagaz hartu-emanik izango ez duen postu batera. Institutuak, Berritzeguneak eta Aldundiak izandako inplikazioa eskertu zuten gurasoek.

“Denboraldi honetako traba nagusia lesioa da”

Kirola - DURANGO

> **Futbola.** Otsailean, Eneko Boveda Eibar futbol taldeko jokalaria ez zekien oraindik denboraldi amaierak igoera ekarriko zionik taldeari. Elkarrizketatutako egunean, lesioekin zegoen arduratuta: “Aurten dudana traba nagusia toki berean izandako zuntz hausturak dira”. Baina Boveda, futbol jokalaria izateaz gainera, ikaslea ere bada. Bilbon Telekomunikazio Ingeniaritza Teknikoa ikasten dabil. Azken urtea bete du, gainera.



Durangoko 46 etxetan sartu ziren lapurrak iaz

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Lapurretak.** PSE-EEren udal taldeak 2013ko lapurreta kasuen inguruko informazioa eman du, eta kezka agertu du, kopuruak nabarmen gora egin duelako. 2013an, 46 etxetan sartu ziren lapurrak, eta, 2011ko datuekin alderatuz gero, laukoiztu egin da kopurua.

Lapurretak orokorrean hartuz gero, etxeetakoak zein kalekoak, 204 izan ziren iaz. Datu hori ere handitu egin da. 2011. urteagaz alderatuz gero, %35eko gorakada eduki dute lapurreta horiek. 204 lapurreta horietatik 109 San Fausto jaietan gertatu zirela jakinarazi dute. PSE-EEk ertzainen eta udaltzainen presentzia handitzea eskatu du.



Erretiroa hartu ostean euskaltegira

Herririk herri - DURANGO

> **Euskara.** Durangoko Abarrak euskaltegian jubilatuen lau talde dihardute euskara ikasten. Askok biloba txikiekin berba egiteko gura dute euskara ikasi. Lagunekin “tabernetan hiru zurito eskatzeko”

ere erabili gura lukete euskara. “Ulertu egin gura dugu besteek zer esaten duten”. Askok aspalditik dute euskara ikasteko gogoia.

Irakasleek eurek gogotsu ikusten dituzte ikasleak: “Gainera, beti daude prest antolatzen dugun edozertan parte hartzeko”. Taloak egitea eta sagardotegira joatea izan dira aurtengo ekintzetako batzuk.

“Gogoia dut Munduko Txapelketara joateko”

Kirola - ABADIÑO

> **Sokatira.** Asier Larrea Abadiñoko sokatira taldeko tiralariarik gazteena da: 17 urte ditu. Aurten hasi da taldean, eta Munduko Txapelketan parte hartu du, Irlandan. Sokatirari buruz zuen irudia aldatu egin zaio. “Astokilo samarra ematen du, baina, barrutik ezagutzen gero, arte bat da”.



Durango Kirol Taldeko beteranoak txapeldun

Kirola - DURANGO

> **Atletismoa.** Pozik bueltatu ziren otsailean Durango Kirol Taldeko emakume beteranoak Sabadelletik (Herrialde Katalanak). Pista Estaliko Espainiako Kopa irabazi zuten. Taldeko emaitza onenak Aurora Perezek eta Emilia Pauniak eskuratu zituzten.



Idi probetako olio tantak publikotik bota zituzten

Herririk herri - BERRIZ

> **Herri kirolak.** Gertaera bitxia ezagutu genuen otsailean, Berrizen. Frogen eta susmoen arabera, olioia bota zuten publikotik San Antonio jaietako azken idi proba saioan. Urtarrilaren 27ko saio horretan, bigarren proba egiten zebiltzala ikusi zituen pistako epaileak olio tantak, eta proba bertan behera geratu zen. Orland Isoird alkatearen berbetan, “tantak ikusi ostean, argi geratzen da publikotik bota zutela olioia”. Publikoa jesartzen den harmailetan, gainera, banderak egoten dira probetan, propaganda euskarriekin, eta plastikorietako bat zulatuta agertu zela azaldu zuen alkateak: “Tantak hasten diren lekuan hain justu”. Antolatzaileen ustez, xiringa edo mota horretako tresnaren bat erabilia” bota zuten olioia.





kirol errota gimnasioa

35 euroan FITNESSA, APARKALEKU PRIBATUA ETA EDOZEIN EKINTZATAN PARTE HARTZEKO AUKERA!

GIMNASIOA	Wing Tsuna	Fit Tonia
SAUNA	Kick Boxinga	Fit Combata
APARKALEKUA	Integral Fita	Pilatesa
	Wellness eta	Krav Maga
	Fitness plana	Jim-Jitsua
		TRX-a

ORDUTEGI ZABALA
Asteleheneretik ostiralera 07:00-22:00
Larunbat eta igandetan 07:00-21:00

INFORMAZIO GEHIAGO
09:00-13:00 / 17:00-21:00

www.kirolerrota.org · 603 740 550 · kirolerrota@jasokirolak.com




errota ostatua**

Durango erdigunean
Aterpetxea ere badugu (15c gaua)
Kafetegia eta gimnasioa zabalik
07:00etatik 22:00etara

GIMNASIOA **APARKALEKUA**

errota@ibaizabalikastola.org Intxaurren kalea, 54 DURANGO
www.ibaizabalikastola.org Tel.: 946 216 021



Odol-emaileak, elkartasun bizia

Durungaldeko odol-emaileak Bizkaiko erreferentzia dira

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Odol-ematea.** Zazpi odol-emaile elkarre daude Durungaldean. Erreferentzia dira Bizkaian, baina kezkatuta daude, nagusiak erretiratu ahala, gazteek ez dutelako erreleboa hartzen. Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroak odol-emate guztiak Galdakaoko ospitaletik koordinatzen ditu. 2013an, 1.591 odol-emaileraren 3.065 donazio jaso zituzten

Durungaldean. Horietatik 89k lehenengoz egin zuten donazioa urte horretan. Durango da odol donazio gehien jasotzen dituen herria. Eguenero hitzordua dute anbulatorio zaharrean. Iurretan, Atxondon, Zaldibarren, Berrizen, Abadiñon (Traña-Matienan) eta Elorrion ere hainbat boluntarioren laguntzagaz donazioek aurrera jarraitzen dute.



Jon Sobrino eta bere mundu ikuskera

Berbaz - DURANGO

> **Elkartasuna.** Jon Sobrino jesuita eta teologoak San Jose Jesuitak ikastetxean *Errealitate gordinaren aurrean, zintzotasuna eta itxaropena* berbaldua eskaini du. ANBOTOrri eskainitako elkarrizketan azaldu duenez, “El Salvadorren konturatu nintzen hangoek niri zer edo zer zeukatela esateko, eskolek esan ez zidaten zerbait”. Gaineratu duenez, “atzera begiratuz gero, ondo bizi izan naizela esan dezaket; gizatasuna presente egonda da nire bizitzan”.

Semearen gaixotasunaren inguruko esperientzia

Berbaz - ABADIÑO

> **Osasuna.** Alberto Ortiz de Barronen semeari haurdunaldian malformazioa detektatu zioten, gaixotasun arraro bat. La Paz ospitalean horrelako kasuetan esperientzia zutela ikusi, eta bertan erditu zuen amak. Berehala egin zioten lehenengo ebakuntza. Ortiz de Barronek familiek dituzten zailtasunez hitz egin zuen: “Familiek euren umearen alde borrokatu beharko lukete, ez dirua lortzearren”.



Landetxea irekiko dute sakristauaren etxean

Herririk herri - GARAI

> **Ostatua.** Sakristauaren etxea atontzen hasi ziren otsailean, ekainerako zabalik izateko. Gotzaindegiaren jabetzakoa da etxea, eta alokairuan hartu dute sustatzailerak. Basque Eusk egitasmoko kideek erabaki dute landetxea zabaltzea. Erabiltzailerak dagokienez, edonork hartu ahalko du ostatu bertan.



Asistentziaren arabera kobratuko dute

Herririk herri - ZALDIBAR

> **Udala.** Zaldibarko zinegotziek diru kopuru bera kobratzen zuten udaleko jardunean parte hartu zein ez. Otsailean egindako udalbatzarrean, parte hartzen duten batzorde eta osoko bilkuren arabera kobratzea onartu zuten.



Xakean eta pokerrean jokatzeko zaletasuna

Akuilua - DURANGO

> **Xakea eta pokerra.** Alain Prieto durangarraren gaixotasuna ezagutu aurretik, xakean eta pokerrean hainbat sari eskuratzegatik elkarrizketatu zuen ANBOTOK. Taktiken inguruan egin zuen berba.



Ibai Zabala eta García Ariño buruz buru

Kirola - DURANGALDEA

> **Pilota.** Roberto García Ariño Asegarceko intendentea elkarrizketatzeko proposatu genion Ibai Zabala pilotari berri-tarrari, eta naturaltasun osoz onartu zuen erronka. Berrizko pilotalekuan elkartu ziren bi belaunalditako pilotariak. García Ariñok profesional sasoiko ibilerak kontatu zituen. Zabalak partidu bat aukeratzeko eskatu zion, eta kazetari baten adierazpenak tarteko zapo-re goxoagoa izan zuen garaipena hautatu zuen. “Lehenengoz jokatu nuen buruz buru, eta Julian Gajosi irabazi nion partidua”. García Ariñok Zabalari aholkua eman zion: “Atzetik kolpe gutxiago ematen eta pilota hobeto bideratzen saiatu behar duzu”. Gaineratu zenez, “ez itxaron pilotak jan zaitzan, pilotaren enkontrua aurrerago egin. Eskopetaz ibili izan zara?”.

Mikel Núñez pianista durangarra Musikenen

Kultura - DURANGO

> **Musika.** Mikel Núñez pianista durangarrak Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian dihardu piano ikasketen hirugarren mailan. Ikasketei berriro heltzeak bere musika jotzeko era aldatu duela dio. “Guztiz aldatu da nire estiloa. Lehen ez nuen jazza jotzen, eta horretan buru-belarri dihardut orain”. Teknika menperatzeaz gainera, jazzlari on batek estilo propioa izan behar duela azaldu du Nuñezek. Baina berak oraindik ez du bere bidea aukeratu.



Yoga irakasle izateko ikastaroak Durangon

Berbaz - DURANGO

> **Yoga.** Yoga irakasle izateko eskola ipini dute abian 2014-2015 ikasturtean. Dhara-nanda yoga zentroko kideek antolatu dute ikastaroa, Zaragozako (Espainia) Darshana eskolagaz elkarlanean. Oier Estankona da yoga zentroko irakaslea. “Ikastaroa ez da irakasle izateko bakarrik; gizartean bizi dugun momentu honetan yogak on handia egin ahal digula uste dut”.

EUSKARAZ ETA
BERDINTASUNEAN
BIZI EGUNEZ
EGUN!

berrizko
UDALA

BERRIZKO
UDALA

Tel.: 946 824 036
www.berriz.org



K.A.

ANBOTO astekaria zornotzarren eskura dago

Martxoan hasi zen ANBOTO Zornotzako postontzietara heltzen; aurkezpena egin zuten Zelaieta zentroan

Herririk herri - ZORNOTZA

> **Hedabideak.** Zornotzako elkarte eta eragileei ANBOTOk luzatutako deialdiak erantzun zabala izan zuen Zornotzan. Kultur eta kirol elkarte, ikastetxe, sindikatu eta alderdi politikoetako hainbat ordezkari bildu ziren martxoaren hasieran, Zelaieta zentroan, Durangaldeko hedabideak antolatutako aurkezpen ekitaldian. Andoni Agirrebeitia kultur zinegotziak egin zituen anfitrioi lanak: “Erronka handia da guretzat euskara

hutsez den astekaria zabaltzea, eta ilusioz eutsi diogu erronka horri”.

ANBOTO Zornotzara zabaltzearen erantzule handienetako bat herritar talde bat izan da. *Berriaren Zure ziztada behar dugu* kanpainarako biltzen hasi ziren, eta euskal hedabideen inguruko hitzaldi bat antolatu zuten Zelaieta zentroan. Mahai inguru horren ostean ANBOTOgaz hartu-emanetan jarri ziren. “Gure artean kezka bat sortu zen:

Zornotzan ez genuen euskara hutsezko hedabiderik”, azaldu zuten. ANBOTO Zornotzara zabaltzeko sinadura kanpainan jarri zuten martxan, eta ale batzuk herriko gune estrategikoetan banatzen hasi ziren. Udalagaz ere harremanetan jarri ziren. Behin Zornotzara helduta, harpidetza kanpaina indartsu bat egitea izan zen hurrengo pausoa. Oraindik ere aukera dago harpidetza egiteko (*harpidetza@anboto.org / 946816558*).



Amorebietako futbol jokariak kromoetan

Kirola - ZORNOTZA

> **Futbola.** Amorebieta futbol taldeak ekimen arrakastatsua abiatu zuen iaz. Kluba osatzen duten talde guztietako jokalariekin –benjaminetatik hasi eta nagusietara arte– osatutako kromoekin albuma argitaratu zuen. Guztira, lauhun jokari agertzen ziren bertan. Ekimenak harrera ona izan zuela ikusita, aurten albuma berargitaratzea erabaki dute. Bigarren B Mailan eta Bizkaian aitzindaria izan zen ekimena iaz. Aurten, Barakaldo, Gernika eta Sestao taldeek ere eredu bera jarraitzea erabaki dute, diru iturri izateaz batera, herrian zeresana emateko eta zaletasuna sustatzeko modua ere badelako.

Hormigoi fabrika aktibitate lizentzia barik

Herririk herri - ABADIÑO

> **Lizentzia.** Gerediaga-Elorrio autobideko lanetarako eraiki zuten hormigoi fabrika udal baimenik barik zebilela salatu zuen Bilduk urtarrilean. Gaia aztertzeke txosten juridikoa egiteko agindua eman zuen alkateak. Martxoko udalbatzarrean aurkeztutako alkatetza dekretuaren arabera, udalak lantegiak falta duen aktibitate lizentzia eskatuko die arduradunei. “Egoera zuzendu dezaketelakoan, ez dugu uste obra geldiarazi behar dugunik”, azpimarratu zuen Jose Luis Navarro alkateak. Hormigoi lantegiaren kontrako zigor espedientea ahalik eta lasterren abiatzea eskatu zuen Bilduk.



Urko Aristi Tokikomeko presidente berria

Berbaz - DURANGALDEA

> **Hedabideak.** Urko Aristi izendatu dute euskarazko tokiko hedabideak, tartean ANBOTO, batzen dituen Tokikom elkarreko presidente. Euskal telebistako eguraldi emankizunen arduraduna izateaz gainera, urteak daramatza *Mailope* aldizkarian lanean, baita Tokikomen ere. Aristik “gogotsu” hartu du kargua. “Erronka handia da, baina inguruan sumatzen dudan energiak eta ilusioak aurrera egitera bultzatzen naute”, azaldu du. Gaineratu duenez, “euskalgintza eta herrigintza, biak uztartzen ditu Tokikomek, eta horregatik asebetetzen nau. Eraikuntza horretan ezertan lagundu ahal badut, egin egingo dut”.



Markomin Goikoarako plan berezia landu dute

Herririk herri - MAÑARIA

> **Harrobiak.** Markomin Goikoa harrobiaren plan bereziari hasierako onarpena eman zion udalak martxoaren 7an. 2002ko udal arauak harrobirako plan bat eskatzen zuten, baina orain arte ez da pausorik

eman. Beraz, aurrerantzean ezingo dute nahieran funtzionatu. Onartutako dokumentuaren helburua harrobiaren jarduerara arautzea da: mugak ezartzea eta erabilera finkatzea. Era berean, planak bigarren atal bat dauka, ingurumenagaz lotutakoa. Naturarekiko ematen diren eragin guztiak jasotzen dira bertan, eta kalte horiek murrizteko neurriak eskatzen ditu.

Elkarte eta eragile ugari gutun sozialagaz bat

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Gizartea.** Plateruenean aurkeztu zuten, martxoan, Eskubide Sozialen Kartaren eztabaida prozesua. Martxoaren 12an, 19an eta 26an Pinondo Etxean batu ziren. Justizia sozialean oinarrituta, bestelako gizarte eredu bat posible dela azpimarratu zuten parte-hartzaileek.



Estresa kudeatzeko mintegiak Zornotzan

Berbaz - ZORNOTZA

> **Estresa.** Garapen pertsonalaren gaineko mintegia eman du Soraia Díez psikologo zornotzarrek. Estresak eragindako sententzioak eta emozioak kudeatzen irakastea izan du helburu: "Estresa zelan sortzen den ulertzen badugu, estres hori kudeatzeko erremintak erabili ditzakegu".

Garitaonandia, Zornotza STko entrenatzailea

Kirola - ZORNOTZA

> **Saskibaloia.** Zornotza Saskibaloia Taldeak Zilarrezko Adecco ligan debutatu du aurten. Zornotzarrek mailari eustea lortu dute, eta playoffetan ere sartu dira. Mikel Garitaonandia entrenatzaile gaztea da arrakastaren erantzuleetako bat. Taldea eraikitzerakoan lehenengo helburua mailari eustea zela aitortu zuen entrenatzaile durangarrak.

Saskibaloia taldeko jokalariek zornotzarren babesa jaso zuten 2013-2014 denboraldian. Garitaonandiak adierazi duenez, "Zornotzan jendea saskibaloira kateatzea oso garrantzitsua zen. Ez genuen espero lehenengo domekatik azkenengora kantxa betetzerik". Zaleen berotasuna eskertu du entrenatzaileak. "Donostiara joateko autobus bi bete genituen".





ABADIÑO
UDALA

ABADIÑO
ELIZATEKO UDALA

www.abadiño.org
956 215 530



Durangoko bonbardaketa gogoan

Juanito Gallastegi abadea eta Iñaki Gorritxategi Durangoko bonbardaketaren lekuko bi dira; umetan bizitakoa argi dute oroimenean

Herririk herri - DURANGO

> **Bonbardaketa.** Juanito Gallastegi abadeak 3 urte zituen 1937ko martxoaren 31n. Bonbardaketa da bere umetako lehenengo oroitzapena. Iñaki Gorritxategik, berriz, 6 urte zituen, eta Berrizko Andikona auzotik ikusi zituen gerra hegazkinak Durangora heltzen. Bonbardaketaren 77. urteurrenean, Gallastegik lore eskaintza egin zuen Andra Mariko oroimen ekitaldian,

bonbardaketaren ondorioz hildakoen alde jarritako plakaren aurrean. Bi lekukoez diotenez, “Durangoko bonbardaketaren egileak gorriak zirela zioen propaganda faxistak”.

Urte askoan ez zela bonbardaketaren inguruan berba egin aitortu dute. “Nekez irteten zen gaia. Larregi sufritu zuten, eta, ahal zela, gai hori alde batera uzten zen”.



Lanbide Heziketa, bide berriak zabaltzen

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Irakaskuntza.** Durangaldeko Lanbide Ikastetxeak milaka ikasle prestatu ditu azken 27 urtean. DBH edo beste ikasketa batzuk gainditu ez, eta ofizio bat ikasteko aukera dute bertan. Programa honen hel-

burua da nahitaezko hezkuntzako oinarriko gaitasunetara behar bezala iristen ez diren ikasleei kalitatezko lan munduratzeko eskaintzea. Gainera, ikasleei DBH gainditzeko aukera ematen diete. Beraz, Lanbide Heziketa ez da helmuga, bide berriak zabaltzeko aukera bat baizik. Iazko ikasturtean 90 gaztek jardun zuten ikasten.



Haizea Barcenilla artearen historiari buruz

Kultura - DURANGO

> **Artea.** Berbaldia eskaini zuen Haizea Barcenilla artearen historialariak Durangon. Emakumezko artisten eta euren lanen ikusezintasunari buruz jardun zuen. “Harrigarria da ikusteazentzat emakumeek ikasten duten Arte Ederrak edo Artearen Historia, eta zein gutxi iristen diren profesional izatera”.



Joxe Arregi Olaizolaren berbaldia Elorrión

Berbaz - ELORRIO

> **Erlijioa.** Joxe Arregi Olaizola frantziskotar ohiak hitzaldia eman zuen martxoan, Elorrioko Arriolan. Elizaren inguruan plazaratu zituen adierazpenek fraidetza eta teologia irakaskuntza utzi beharra eragin zioten. Fedearen inguruko gogoe-ta egiten jarraitzen duela azaldu zuen.



Natalia Campo kazetaria ‘Corazón’ programan

Akuilua - DURANGO

> **Kazetaritza.** Natalia Campo durangarrak abendutik dihardu RTVEko *Corazón* programan Anne Igartiburugaz batera. Albistegietan hasi zen, eta prentsa arrosara pasatu da.



Kalitatezko produktuak kontsumitzeko helburua

Akuilua - ZORNOTZA

> **Elikadura.** Asier Bilbao zornotzarra 2012tik da Zornotzako kontsumo taldeko kidea. Taldearen helburu nagusia da Iurretako nekazariak sortutako produktu agroekologikoei bultzada ematea eta kalitatezko produktuak kontsumitzea.



Anbulantzia bai, medikalizatu ez

Kirola - DURANGALDEA

> **Osasuna.** Landakoko larrialdietarako beharginek eta Durangaldeko hainbat udalek Durangalderako ambulanzia medikalizatu bat eskatu eta hilabete batzuetara, martxoan, Osakidetza ambulanzia berri bat ipini zuen, baina ez zen eskatutakoa. Medikalizatuak ZIU zainketa intentsiboetako unitate mugikorreko zerbitzuak izaten ditu, eta medikua eta erizaina egoten dira. Martxoan martxan jarri zuten ambulanzian erizain batek dihardu, eta egunez bakarrik. Durangaldetik gertuen dagoen ambulanzia medikalizatu Gernikan dago. Ambulanzia horren beharrezan beharginek eurek azaleratu zuten, lan baldintzen inguruko kezak publiko egin zituztenean. Durangon, kalean zihoala, bihotzekoak jota gizon bat hil zenean azaleratu zen ambulanzia honen beharra.

Durangoko eta Garaiko probak bertan behera

Kirola - DURANGALDEA

> **Duatloia-Triatloia.** Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak dioenez, probintzia berean ezin dute egun eta ordu berean errepideko lasterketa bik bat egin. Arau horrek eragina izan du aurten Durangoko eta Garaiko probetan. Mugarra Triatloi Taldeak martxoaren 29rako aurreikusitako proba bertan behera utzi behar izan zuen. Garaiko Triatloi Taldeak uztailaren 5ean antolatzeko asmoa zuen triatloia ere bertan behera utzi behar izan zuen.



Eider Ruiz de Agirre, biologo eta suhiltzaile

Akuilua - IURRETA

> **Lana.** Eider Ruiz de Agirrek biologia ikasi, eta laborategian orduak sartzetik suhiltzaile etxera egin zuen salto 2010ean. Erromoko 35 urteko gazteak Iurretako suhiltzaile etxean dihardu lanean. 2007an egin zituen lehen oposaketak, eta 2009an lan poltsan sartu zen. Ez zuen horrelakorik espero. "Prestatzen hasi aurretik suhiltzaile izatea ia ezinezko zerbait zela uste nuen".



GARAICO UDALA
Tel.: 946 816 393
www.garaikoudala.org



Txakurrentzako berdegueak eskatu dituzte Durangon

Txakurren ordenantza berritzea eskatzeko ezohiko mobilizazioa egin zuten txakurren jabeek udaletxe aurrean

Herririk herri - Durango

> **Txakurrak.** Protesta deigarria egin zuten apirilean, Durangoko udaletxe aurrean. Dozenaka herritar batu ziren txakur eta guzti, eta irudi berezia sortu zuten. Mobilizazio isila izan zen arren, txakurren zaunkek zaratsatu bihurtu zuten. Txakurrak aske ibiltzeko berdegueak edo ordutegi bat zehaztea eskatu zuten. Protesta hori era naturalean sortu zela azaldu zuten antolatzaileek. Landakoko berdegune batean elkartzen diren herri-

tar batzuen ekimenez sortu zen, eta sare sozialen bidez hedatu zen. Salatu zuten, udaltzainak gainean izaten zituzten, eta txakurren jabeak isunen beldur ziren. Ekimen honen ostean, txakurren jabeek Durandog elkarteak sortu zuten Durangon.

Elkartearen helburua Durangon txakurren ordenantza gaurkotzea da. Arau berriak eztabaidatu eta indarrean jarri bitartean, behin-behineko araudia

martxan jartzea eskatu zioten udalari. Izan ere, ordenantza zaharragaz herri-gunetik kanpora dauden berdeguneetan baino ezin zituzten txakurrak askatu, ordutegi zehatz batean. Durangon 2.000 txakur baino gehiago erroldatuta daudela kontuan hartuz gero, araudi hori bidegabea zela uste zuten txakurren jabeek. Hilabete batzuk beranduago lortu zuten behin-behineko araudia eta berdeguneak erabiltzeko ordutegia onartzea.



91 enpresak ingurumen aholkularitza jasoko dute

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Ingurumena.** 2012. eta 2013. urteen artean aholkularitza zerbitzua jarri zuten martxan, Durangaldeko enpresek ingurumen arloan indarrean dagoen legedia behar bezala bete zezaten. Aurten, berriz, ingurumen aholkularitzaren arloan, eskualdeko 91 enpresatan diagnostikora eta laguntzara bideratutako ekintzak landu dituzte. Durangaldeko zortzi herritan jardun dute: Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Zaldibarren.



Gerediagako Foru Zelaia zabalik asteburuetan

Herririk herri - DURANGO

> **Batzar Nagusiak.** Gerediaga Elkartek komunikabideetara bidalitako oharrean jakinarazizuen apirilaren 5ean zabalduko zutela Gerediagako Foru Zelaia. Gerediaga Elkartek, Bizkaiko Batzar Nagusiak, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoak eta Abadiñoko Udalak adostu bezala, asteburuetan inguru hori zabaltzeari ekin zioten, 10:00etatik 18:00etara neguan, eta 10:00etatik 20:00etara udan. "Batzartoki honen garrantzi historikoa ukazina da", azpimarratu zuen Gerediaga Elkartek. "600 urtean, gutxienez, Durangoko Merinaldeko Batzar Nagusien tokia izanik, gure eskualdeko leku historiko garrantzitsuena eta ikur nagusia da", gaineratu zuen.

A-8ko beharginek protestak egin dituzte

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Lan gatazka.** Protestak egin zituzten apirilean A-8 autobideko langileek, LAB, ELA eta beharginek osatutako langile komiteak deituta. Ekimen horregaz hitzarmen kolektiboaren defentsa egin gura izan zuten Gebisa enpresaren aurrean. "Zuzendaritzak lan erreformaz baliatu nahi du Bizkaiko Foru Aldundiak iazko azaroan eman zuen jarraibide teknikoari jaramon egin barik".





Tabirakoko emakumeak Nazional Mailan irabazle

▣ **Kirola** - DURANGO

> **Saskibaloia.** Tabirako Baqué emakumeen talde nagusiak Nazional Mailako txapeldun zela jokatu zuen ligako azken jardunaldia, apirilean. Azken jardunaldiaren atarian lider zen, eta garaipen biko alde ateratzen zion Leioari. “Ez genuen espero, eta lorpen zoragarria da”, adierazi zuen Itsaso Gartzia klubeko presidentea. Gartziak jokalarien eta entrenatzailearen inplikazioa azpimarratu zituen. Hurrengo erronka mailaz igotzea izan zen. Baina taldeak ezin izan zuen erronka hori lortu. Maiatzean, Emakumeen Liga 2-rako igogera fasea jokatu zuen Tabirako Baquek Salamancan. Lehenengo partidu biak galdu egin zituen: Universidad Salamanca (67-49) eta Donostia Basket (44-35) taldeen aurka. Igotzeko aukera barik, Galiziako Lourrenza taldeari irabazi egin zion, eta hirugarren tokia ziurtatu zuen: 75-66.

Andra Mariko iturriaren lekualdatzeagaz haserre

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **Iturria.** Andra Mariko iturria metro batzuk lekuz aldatzearen aurka agertu dira auzokide batzuk: “Ez da onargarria udal-letxeak iturri hau mugitzea taberna batek eskatu duelako”.



Kepa Amantegi auto gidaria Montmelon

▣ **Kirola** - DURANGO

> **Autoak.** Maiatzean Montmeloko zirkuituan debuta egin zuen Kepa Amantegi pilotu durangarrak. 18 urte baino gutxiago eman zituen lehenengo pausoak auto gidari gisa oso emaitza onekin.



‘Divenire’, Logela Multimediaren eskutik

▣ **Kultura** - ELORRIO

> **Dantza.** Apirilaren bukaeran, *Divenire* lana estreinatu aurretik elkarrizketatu zuen ANBOTOK Logela Multimediako kide Imanol Garaizabal. Circle Of Trust taldeak eta Peio Agirrek ekoizpen berrian parte hartu dute.

Silikosi kasuak salatu ditu LABek Fumbarri

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **Lan osasuna.** LAB sindikatuko Durangaldeko ehun ordezkarri inguruk Fundiciones Fumbarri SA enpresaren aurrean elkarretaratzea egin dute. Sindikatuak dioenez, galdategi horretan langileen %10 gaixo dago, silikosiak jota. Enpresaren jarraera “arduragabea” kritikatu dute.



ZORNOTZAKO BARNETEGIAN EGUN GUZTIA EUSKARAZ

Benetan euskara ikasi nahi baduzu, hau da zure etxea. Maila guztiak. HABE azterketak, hizkuntza eskakizunak, EGA eta EGAtik gorako ikastaroak.

Larrea auzoa, z/g - Amorebieta-Etxano
94 630 83 04 - info@zornotzakobarnetegia.eus
www.zornotzakobarnetegia.eus

Zornotzako Barnetegia





LOMCE hezkuntza legearen kontra

Heririk herri - DURANGO

> **Hezkuntza.** Durangoko bost ikastetxe-tako kideak batzartzen hasi dira Espainiako LOMCE legeari erantzun guran: Kurutziaga eta Ibaizabal ikastolak, Fray Juan de Zumarraga institutua, eta Landako eta Zabalarra eskolak. Ikastetxeetako kontseiluetan LOMCE legea aztertu dute, eta ez daude ados legeagaz. Hainbat mobilizazio antolatu dituzte aurten hezkuntza lege berriaren aurka.

Durangoko ikastetxeetako ordezkariak bildu egin dira hezkuntza arloan datorrenari aurre egiteko. ANBOTOn egindako elkarrizketan legearen karga ideologikoaz ohartu zuten: "Lege hau PPK egin du, beste inogaz kontatu barik. Ideologia bakar batek ezin du hezkuntza sistema bat antolatu". Era berean, A eredia indartuko duen legea dela kritikatu dute.



Elikadura ekologikoaren kontseilua Zornotzan

Heririk herri - ZORNOTZA

> **Elikadura.** Interpretazio zentroa itxi zenetik Jauregi Barria baserriko lehenengo solairua hutsik egon da. Eta lekua egin diote bertan Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluari. Aurretik, Gernikan egon da, behin-behineko leku batean. Hamabost urterako lagapena izango da, baina beste bost urtez luzatzeko aukera izango du. Doako lagapena den arren, mantentze-lanen gastua kontseiluak hartu du bere gain.



Emakume alargunen egoera aztertu dute

Heririk herri - ELORRIO

> **Berdintasuna.** Emakumeen alarguntasunari buruzko ikerketa egin dute Elorrioren. Ikertutakoaren arabera, 65 urtetik gorako

emakume osasuntsuarena da alargunaren profila. Bere etxebizitzaren jabea da, nahiz eta askotan seme-alabekin partekatuta izan, jaraunspena dela-eta. Diru-sarrerera bakarrena pentsioa da gehienetan, 400-600 eurokoa. Gainera, alargunen %24k aisialdirako zailtasunak dituela azaldu du.



Eneritz Trigueros Durango aztertzen

Heririk herri - DURANGO

> **Arkitektura.** Eneritz Trigueros arkitekto durangarrak trenaren lurperatzean oinarritu du ikasketa bukaerako proiektua, lanera Vienara (Austria) joan aurretik. Durango hazten joan beharrean, azalera hori aprobetxatu beharko litzatekeela dio. Horretarako, herritarren parte-hartzea garrantzitsua dela uste du.



Mugarra TTren hamar urteko ibilbidea

Kirola - DURANGO

> **Triatloia.** Mugarra Triatloi Taldeak hamar urte bete ditu aurten, eta egun osoko ospakizunagaz ospatu du. Urteotan triatloi eskola ere sortu du, eta 70-80 gaztek dihardute. Gainera, Durangoko jaietan txupinazo txikia jaurti dute eskolakoek.



Udaltzaingoan giltzak utzi ditzakete nagusiek

Heririk herri - DURANGO

> **Nagusiak.** Durangoko nagusien etxeetan arrisku egoera edo arazoren bat sortzen bada, udaltzainek berehala zabaldu ahal izango dute atea udalak abian jarri duen zerbitzuari esker.



Javier Renovales aktore zornotzarra taula gainean

Kultura - DURANGO

> **Antzerkia.** Javier Renovales aktore zornotzarrak *Kibubu* antzezlana taularatu du Durangaldean, Marie de Jongh taldeagaz. Lan hau, taldearen gainerako proiektuak bezala, keinuetan oinarrituta dago. Kibubu gorila eta Xebas dira antzezlaneko protagonistak. Karakterizazio onenaren eta interpretazio onenaren Feten sariak jaso ditu. Jokin Oregik zuzendutako lanak publikoaren aldetik harrera ona izan du.

Intxorta asti elkartearen 25. urteurren ospakizuna

Herririk herri - ELORRIO

> **Aisialdia.** Elorrioko umeei aisialdirako alternatiba bat eskaintzeko asmoz, hainbat gazte batuziren 1989an. Intxorta asti elkarte sortu zen horrela. Sorrera horretatik 25 urte pasatu direla gogoratzeko, egun osoko ekitaldia prestatu dute. Gaur egun 25 begiralek osatzen dute taldea, umetan Intxortako ekintzetara joan, eta orain begirale bihurtu direnak. Begiraleek udalekuaren xarma nabarmendu dute. Partaide kopuruak ere gorantz egin du. Duela lau urte 40 ume hartu zituzten, eta iaz 120.



Garaitarrak Lantziegora senidetza ospatzera

Herririk herri - GARAI

> **Bidaia.** Apirilean Lantziegora (Araba) joan ziren garaitarrak, hango bizilagunekin senidetza ospatzeko asmoz. Iaztik dute lotura ofiziala bi udalek, herritarren artean hainbat urtetako harremana badago ere. Alfonso Luis González Lantziegoko alkateak eta Gontzal Sarrigoitia Garaikoak senidetza irudikatu zuten plaka bat jarrita eta Garaiko artearen kimu bat landatuta.

OTXANDIOKO UDALA
945 450 020 · www.otxandio.net



OTXANDIOKO UDALA



Maiatzak 1, murrizketen kontrako aldarrikapen eguna

Durangaldean askotariko mobilizazioak egin zituzten Langileen Nazioarteko Egunaren harira.

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Mobilizazioak.** Langileen Nazioarteko Eguna murrizketen kontrako aldarriz eta mobilizazioz bete zuten sindikatuek. LABek Durangaldeko egoeraren gaineko datuak eman zituen: esaterako, 1.900 lagun probrezia egoeran daudela adierazi zuen. Horren kontra “beharrezkoa da bestelako eredu ekonomiko eta sozial bat, eta, batez ere, inposaketaren gainetik, eredu hori eraikitzea guri dagokigu”. ELA sindikatuak azaldu zuenez, “pa-

tronalaren neurritan egindako erreformek ekarri dute lanari gizatasuna kendu, murrizketa sozialetan oinarritutako aurrekontuen egonkortasuna ezarri, fiskalitate aurrerakoari uko egin, eta pentsioei eraso egin izana, adibidez”. ELAren arabera, politika horiek langabezia eta desberdintasunak areagotzen dituzte, eta posible dira edozein oreka sozial bermatzeari uko egin dioten gobernuen lankidetzari esker.

UGT eta CCOO sindikatuek kalitatezko enplegu barik ezin daitekeela enpleguaren berreskurapenik gertatu nabarmendu zuten Bilbon egindako manifestazioan. Bilboko manifestazioaz gainera, hainbat mobilizazio izan ziren Durangaldean. Esate baterako, Zornotza Eraldatuz herri ekimenak manifestazio-ara deitu zituen herritarrek *Prekarietateari, murrizketei, langabeziari... aurre egin!* lelopean.



Landako Gunearen gestio eredu ezbaian

Herririk herri - DURANGO

> **Azpiegiturak.** 2004an zabaldu zenetik hona, Landako erakustazokak errentagarri izateko dituen arazoak mahaigaineratu zituen EH Bilduk prentsaurreko batean, eta kudeaketa ereduaren gaineko eztabaida piztu zuen. Gaur egun, LESA enpresa publikoak kudeatzen du Landako Gunea. EH Bilduren ustez, enpresa desegin, eta kudeaketaren ardura udalak hartu behar luke. EAJren ustez, proposamen hori “ezjakintasunean eraikita” dago: “Izugarri gehituko lituzke udalaren zuzeneko gastuak”. PSE-EEk ere enpresa publikoaren alde egin zuen: “Kontuekiko daukagun kontrol totala murriztuko litzateke”.

Atxa eta Arginzoniz 50 sukaldari onenen artean

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Sukaldaritza.** *Restaurant* aldizkariak egin duen jatetxe onenen zerrendan daude Durangaldeko Eneko Atxa eta Bittor Arginzoniz sukaldarien jatetxeak. Atxa zornotzarraren Azurmendi jatetxeak 26. postua lortu du, eta Bittor Arginzonizen Axpeko Etxebarri jatetxeak 34. lekua. Axpeko Etxebarri zarpigarren urtea du munduko jatetxerik onenen zerrendan. Iaz 44. postuan sartu zen, eta aurten hamar postu aurrerago ipini dute. Atxaren Larrabetzuko (Bizkaia) jatetxea lehenengoz sartu da zerrendan, eta zerrendaren erdialdean sartu ere, 26. tokian. Sari hauen atzean talde-lan ikaragarria dagoela aitortu zuten bi sukaldariek.



Eskualdeko musikariak eta bertsio ezagunak

Kultura - DURANGO

> **Musika.** Urterik urtera finkatzen eta sendotzen ari den ekimena da Greatest Hits Gaua. Durangaldeko musikariek talde ezagun edo esanguratsuen bertsioak jotzen dituzte zuzenean, Plateruenean. Aurten hirugarren aldia egin du, eta hogeitau talde aritu dira zuzenean. Ekimenaren helburua “Durangaldeko musika taldeen arteko harremana sendotzea eta eskualdeko publikoari taldeak ezagutaraztea da”, jaialdiko produkzio lanetan ibili den Kimetz Zenitagoiaren esanetan. Besteak beste, Parabellum, Nirvana, Kiss, The Cramberries, EH Sukarra, Corazón del Sapo eta Skunk Anansie taldeen bertsioak entzun ahal izan dira aurten.



25 urte egin ditu Berbaro euskara elkarteak

Herririk herri - DURANGO

> **Urteurrena.** Berbaro euskara elkarteak 25 urte egin ditu aurten. Maiatzean, Plateruenean egindako ekitaldian ospatu zuten mende laurdena bete izana. Antzokia goraino bete zuen bazkariaren ostean, ikuskizun berezi bat eskaini zuten Berbaroko kideek. Gainera, askotariko ekintzak egon ziren egun osoan: musika, umeen jolasak, poteo herrikoia... Elkartearen irudi berria ere inauguratu zuten.

“Jende askoren lanari esker ailegatu gara gauden lekura”, adierazi zuen Maitte Berriozabal kudeatzaileak. Etorkizunean, besteak beste, gazteengan ipiniko dute arreta: “Euskaraz bizitzeko hautua gazteengana hurreratzea izango da gure helburuetako bat”. Era berean, euskararen normalizazioan pausoak emateko “ezinbesteko” ikusten du “beste elkarte batzuekin beharrez jarraitzea”.

Laguntzekin jarraitzeko eskaera presoen senideek

Herririk herri - ELORRIO

> **Ettxerat.** Udaleko gobernu taldeak aurten ez du aurreikusi sakabanaturik dauden preso senideei diruz laguntzerik. Horregatik, 1.420 sinadura aurkeztu zituen Etxerarek, laguntzei eusteko eskatzeko.



Gazteei lana bilatzen laguntzeko egitasmoa

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Enplegua.** Gazteei lana aurkitzen laguntzeko Jar Zaitetz Martxan proiektua abiatu du Amankomunazgoko Behargintzak. Era berean, gazteen ideiak lantzeko gazte ekintzaileen gela ipini du martxan.



Sugarri, Europako musika bandarik onena

Herririk herri - DURANGO

> **Musika.** Europako hainbat herrialdeetako 35 taldek hartu dute parte Frantziako Condom herrian antolaturiko lehiaketan. Musika bandarik onenaren, zuzeneko erakargarrienaren eta musikaltasunaren saria irabazi ditu Durangoko Sugarrik.

Areto futbola utzi du Iñigo Astarloak

Kirola - ELORRIO

> **Areto futbola.** 44 urtegeaz areto futbola utzi du Iñigo Astarloa elorriarrak. Futboleant urte batzuk eman ostean, areto futbolarera igaro zen: Sasikoan hamar urte igaro ditu eta Elorrioko Buskantzan bost. Azken partiduan oparitu zioten kamisetak honako hau dio: “Zure izaera gure eredu”.



45 urte baino gehiago euskal basoen zerbitzura



Pinuarekin egin daitekeen paperik onena!

Jasangarritasuna bermatzen dugu honako ziurtagiri hauen bitartez:





Joseba Sarrionandiaren obrak hitzez eta ahotsez zabaldu dituzte

Irakurri, bertsotan eta kantatuz zabaldu zituzten iurretarraren berbak

Kultura - DURANGALDEA

> **Literatura.** Literaturazale eta euskaltzale talde baten ekimenez, urte hasieratik maiatzera Joseba Sarrionandia idazlearen obrak ezagutarazteko hainbat ekimen egin zituzten *Sarri, hitzez eta ahotsez* izenburupean. Platerueneko irakurraldia izan zen azken ekitaldia. Irakurrita, bertso forman emanda eta kantatuta, Sarrionandiaren berbak

ikasle, irakasle, kazetari, poeta eta alkateen ahotik entzun ahal izan ziren. Olerkiak, eleberrietako pasarteak eta narrazio laburrak irakurri zituzten. “Esparru guztietako jendea aritu da iurretarraren testuak irakurtzen”, adierazi zuen Marisa Barrena ekimenaren sustatzaileetako batek: “Ideologiari dagokionez ere, alde guztietako jendea”.

Alde Zaharreko arazoei irtenbidea bilatu nahian

Herririk herri - DURANGO

> **Durangoko Alde Zaharra.** DAZ elkarte-kideek eskainitako prentsaurrekoan Alde Zaharrean karkabekin, zaratagaz, segurtasunagaz, zaborragaz eta harlauze-kin dauden gabeziak zerrendatu dituzte, eta arazoengatik udalak bidalitako erantzuna ez dela nahikoa kritikatu dute. “Alboratuta sentitzen gara”, adierazi du DAZeko Jose Mari Arrillagak. Gobernu taldeak adierazi duenez, DAZeko kideak, behar izan duten bakoitzean, teknikariek batzartu dira, eta Hirigintza Batzordeetan politikariek berba egin izan dute.



Ezgaitasun Eguna antolatu zuten Elorri

Herririk herri - ELORRIO

> **Gizarteratzea.** Elorriok Ezgaitasun Eguren bigarren aldia hartu zuen maiatzean. Ezgaitasuna edo aniztasun funtzionala plazara ateratzea eta eguneroko bizimoduan eragiten dituen zailtasunak herritarrei azaltzea izan zuten helburu. Geu Be, Elorrioko Udala eta txirrindulari elkarteak izan ziren antolatzaileak.



2013an 65 etxe kaleratze izan zirela gogoratu dute

Herririk herri - DURANGO

> **Etxe kaleratzeak.** EHBilduk prentsaurreko bidez eman ditu datuok: 2013an 65 etxe kaleratze agindu zituen Durangoko Justizia Auzitegiak. 39 jabetzako etxeak ziren, eta 25 alokairukoak. Horietatik bat Eusko Jaurlaritzaren Bizigune alokairu programakoa zen.



Korrikan egiteko ‘Gu be bai runners’ ekimena

Kirola - ZORNOTZA

> **Korrika.** Zornotzako 50 bat emakume *Gu be bai runners* ekimenean batu dira, euren denbora librean korrika egiteko helburuz. Iraia García atleta zornotzarrak sustatu du egitasmoa.



Estankona autoak sortu zireneko 60. urteurrena

Akuihua - DURANGO

> **Autoak.** Jose Estankonak Espainiako lehen autoak diseinatu zituen 1953an. Bere seme Iñakik auto horietako bat du oraindik. “Autoak duen balio sentimentala inork ezin dit ordaindu”, adierazi du Iñaki Estankonak.



1981ean baino 20.000 euskaldun gehiago

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Euskara.** Eusko Jaurlaritzak argitaratutako azken mapa soziolinguistikoaren arabera, herritarren %52 elebiduna da Durangaldean, eta %18 elebidun hartzailea –euskara ulertzeko gai dira, baina ez dira ondo moldatzen komunikatzera koan–. Oro har, 1981ean baino ia 20.000 euskaldun gehiago dago Durangaldean. Urte horretan biztanleen erdia erdaldun elebarkarra zen, eta orain hamarretik hiru dira euskara ulertzen ez dutenak. Euskaldun kopuruaren hazkuntza zerikusi handia du eskolen euskalduntzeak. Orain, 20 urtetik beherako %87 inguru da elebiduna Durangaldean, eta 1981ean, berriz, adin tarte horretan %34,3 zen elebiduna. Orokorrean, Durangalde osoan igo da ezagutzza, eta horrek harreman sareetan euskara sarriago egiteko aukera ematen du.

Herritarrek Argiñetako indusketetan lanean

Herririk herri - ELORRIO

> **Arkeologia.** Argiñetako indusketen hiru garren eta azken fasean, herritarrei bertan lan egiteko aukera eman diete. Herritar askok hartu du parte ekimenean. Iñaki García Camino arkeologoaren ustez, ideia ona izan da boluntarioei aukera ematea, horrela, “sentsibilitate handiagoa sortuko delako”. Azken fasean, arlo bi aztertuko dituzte: ermita atzeko herrixkaren antolaketan sakonduko dute, eta, hilerriko hilobien azpian herrixkaren arrastoak ote dauden ikertuko dute.



Oinezko, txirrindulari eta gidarientzako kanpaina

Herririk herri - DURANGO

> **Mugikortasuna.** Stop Accidentes elkarteak eta udalak mugikortasunaren inguruko sentsibilizazio kanpaina abiatu dute oinezkoen, txirrindularien eta auto gidarien arteko elkarbizitzan sakontzeko. Esaterako, Duranguesa txirrindulari elkarteak hitzaldiak eskaini ditu ikastetxeetan. Kanpaina honek Jon Karro eta Cristina Petiteren babesa jaso zuen.

Garaipenaren bidera itzuli da Zigor Iturrieta

Kirola - ZORNOTZA

> **Mendi lasterketak.** Urte bian garaipenik lortu barik egon ostean, eta belauneko lesiotik sendatu berritan, Menorcako Camí de Cavalls ultratraila (185 km) irabazi du Zigor Iturrietak. Ordu bian ondu du errekorra. Lehenengoz aritu da 130 kilometrotik gorako proba batean.





ikastolenelkartea

- Konfiantzan, ikastola -



www.kurutziagaikastola.net



www.ibaizabalikastola.org



Erabakitzeko eskubidearen aldeko olatu erraldoia

Durangotik abiatu zen Iruñerainoko giza kate erraldoia; eskualdeko bide bazterrak jendez gainezka egon ziren


Herririk herri - DURANGALDEA

> **Politika.** Ekainaren 8an Euskal Herriaren historian ezagutzen den manifestaziorik jendetsuenetakoa egin zen erabakitzeko eskubidearen alde. Durangotik Iruñera, elkarri eskutik heldu eta giza kate bat osatuta, ibilbide osoa bete zuten milaka eta milaka lagunek. Durango, Abadiño, Atxondo eta Elorriotik ere igaro zen katea, jendearen mugimenduagaz olatu erraldoi bihurtu zena. Tarte horretan, 21.500 lagunek parte hartu zuten,

antolatzaileen arabera. Gure Esku Dago plataformak bultzatu zuen ekimena, erabakitzeko eskubidearen arloan herritarren garaia dela sinetsita. Jendeak erakutsitako ilusia nabarmendu zuten.

Hainbat herri plataformek egindako lanaren ondorioz sortu zen Gure Esku Dago. Adibidez, Berrizko Kantxa Zati Bat izan zen bultzatzaileetako bat. Giza kate erraldoia iaz iragarri zuten, eta erronka, gutxienez, 150.000 herritar ba-

tzea zen, Durangotik Iruñerako bidea osatzeko. Horretarako, herririk herri sendotzen joan zen mugimendua: aurkezpenak, argazkiak, bideoak... Dinamikak bizitza soziala busti zuen. Esaterako, Abadiñon, Gure Esku Dagoren kamiseta jantzita agurtu zuten Gerbas, San Trokaz jaietako sinboloa, eta Otxandion, pregoilari izan ziren dinamikaren sustatzaileak. Datorren urterako beste hainbat egitasmo iragarri dituzte.



Urkiolan ezingo da beste harrobirik zabaldu

Herririk herri - MAÑARIA

> **Ingurumena.** Urkiolako parke naturalean ezingo da aurrerantzean beste harrobirik zabaldu. Eusko Jaurlaritzak bertako baliabide naturalak antolatzeke plana aldatu du dekretu bidez, baliabide horiek babesteko helburuagaz. Parke naturalean zein periferiako eremu babestuan dauden harrobiak arautzen ditu dekretuak. Markomin Goikoa eta Mutxate harrobien kasuan, egungo ustiapeneko baliabideak amaitzean ez zaie beste baimenik eman. Atxa Txiki, Atxarte eta Zalloventari dagokienez, ingurune horiek berreskuratu egin behar direla dio Eusko Jaurlaritzak, eremuak kontserbatzeko asmoz.

Karabanen aparkalekua egingo dute 2015ean

Herririk herri - ELORRIO

> **Azpiegiturak.** Elorrioko Udalak 2013an erabaki zuen karabanentzako aparkaleku bat eraikitzea, baina proiektuak ez du argia ikusiko datorren urtera arte. Aurten onartu dute proiektuari bultzada ematea. San Jose kalean egokituko dute aparkalekua, eta horregaz turismoa indartu gura dute udal arduradunek. Batez ere, Europako autokarabanazaleak erakartzea da euren helburua.

Hainbat aukera edukiko dituzte zerbitzuagaz: ur zikinak bota, ur garbia eta argindarra jaso, eta gaua bertan pasatu ahal dute. Baina aparkalekuan bertan ezingo dute akanpatu.



Xabier Amuriza, ohorezko euskaltzain

Herririk herri - BERRIZ

> **Euskara.** Xabier Amuriza ohorezko euskaltzain izendatu du Euskaltzaindiak. Aldiro-aldira egiten ditu horrelako izendapenak akademiak, eta aurtengoan Etxanon jaiotako berriztarra aukeratu dute, beste hamaikagaz batera. Guztira, 39 ohorezko euskaltzain daude gaur egun. 1967an euskaltzain urgazle izendatu zuten.

Euskara ardatz hartuta, makina bat lanetan ibili izan da Amuriza. Bertsolaria, idazlea, kazetaria eta itzultzailea da. Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia birritan irabazi du, jarraian gainera, 1980an eta 1982an. Lau urtez ANBOTO astekean ere ibili zen zuzentzaile.



Esteibarlanda eta Aiartzaguena, libre

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Politika.** Ibai Esteibarlanda elorriarra eta Eñaut Aiartzaguena iurretarra Segiko kide izatea egotzita epaitu zituzten iazko udazkenean, Auzitegi Nazionalan. Beste 38 lagun ere egon ziren auzipetuen aulkian, eta, azkenean, guztiak absolbitu dituzte. Atxilotuak eta inkomunikatuak izan zirenean, 2009an, torturatu egin zituztela salatu zuten gazteek. Akusazio gehienak autoinkulpazioetatik zetozen, eta epaileak zalantzan ipini zituen horiek.

Bestalde, *Herriko tabernen auziagaz* lotuta, Enrike Alaña durangarra zigortu egin zuten, eta tabernak ixtea agindu ere bai. Helegitea jarri zioten epai horri, eta orain Auzitegi Gorenak hartu beharko du erabakia.

Segun Lazkano omendu dute bere lagunek

Herririk herri - ELORRIO

> **Omenaldia.** Iazko azaroaren 18an hil zen Segun Lazkano elorriarra, 54 urte zituela. Irakaslea zen ofizioz, baina argazkilaritza eta euskararen sustapena ere bere pasioen artean zeuden. *Eraz* astekariko sortzaileetako bat izan zen, adibidez. Sektore kultural eta sozial askotan ibili zen.

Lazkano maite zuten lagunek bera gogoratzeko eta omentzeko ekitaldia prestatu zuten ekainaren 21ean.



Begira Photo jaialdiaren aurrerapausoak

Kultura - DURANGO

> **Argazkilaritza.** Begira Photo jaialdiak aurtan ere argazkigintza zabaltzeko proposamena egin du. Antolatzaileek ahalik eta herritar gehienengana heltzeko nahia erakutsi dute, eta ez argazkigintzaren munduan dabilzanengana bakarrik.

Leo Simoes antolatzailearen esanetan, aurtan aurrerapausoak eman ditu jaialdiak. Izan ere, bestelako sortzaileen partaidetza ere eduki dute, Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolariena, adibidez.



Elorrioko udala
 Elorrioko Udala
 Tel.: 946 582 712
 www.elorrio.net



Etxebakoentzako etxea zabalik

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **Ongintza.** Caritas-Tabira elkarteak aspalditik zeukan amets bat errealitate bihurtu da. Etxebakoentzako aterpea zabaldu du elkarteak, eta Etxepel ize-nagaz bataiatu. Lokal bat topatzea izan da trabarik handiena. “Aspalditik sentitzen genuen etxebakoei laguntzeko premia, baina ezin genien lagundu”, adierazi zuen etxearen inaugurazioan Esther Bilbao elkarteko kideak. Baina duela urte bi Jesusen Mirabeek Intxaurrondoko komentua utzi zuten, eta hamar urterako Caritasi lagatzea erabaki

zuten. Oraindik finantziazioa topatzeko beharra daukaten arren, aurrera egin, eta Etxepel zabaltzea pentsatu dute.

Eguneko zentroa, gaueko ostatua eta hiru etxe autonomo edukiko ditu, 40 lagunentzat. Baina oraindik eguneko zentroa bakarrik dago zabalik. Hainbat zerbitzu eskaintzen dizkiete etxebakoei: jatorduak, atsedeen hartzeko gelak eta higienarako aukera, adibidez. Proiektuak alde pastorala eta eraldatzailea dauzka, José Agustín Maiz Andra Mariko parrokoaren esanetan.

Atzerriko adingabeen zentroa itxi dute

▣ **Herririk herri** - IZURTZA

> **Gizarteratzea.** 2007tik atzeritik zetozen gazteak jaso izan ditu Etxaburu dorretxearen alboko aterpetxeak. Landalan elkarteak gestionatu du zentroa, gazte horien gizarteratzea eta emantzipazioa sustatzeko. Baina Bizkaira heltzen diren atzerriko adingabeen kopurua jaisten dabilela adierazi zuen elkarteko kide batek, eta horregatik itxi zuten ekainean.

Zazpi urteotan izurtzarrengandik “harrera ona” jaso dute, euren arabera. Hori eskertzeko, jaialdi bat prestatu zuten San Joan bezperan.



Abesbatzen mundura gerturatzeko deia

▣ **Akuiua** - ZORNOTZA

> **Musika.** Mireia Izagirre Abes Kimu eta Zornoza abesbatzetako zuzendaria da, musika irakaslea izateaz gainera. “Gazteei abesbatzen mundura gerturatzeko deia egingo nieke”, esan zuen ekainean egindako elkarrizketan. Zornoza koralak 60 urte bete ditu aurten, eta harrobiaren beharra dagoela uste du Izagirrek.



Orratzez betetako saltxitxak agertu dira

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **Animaliak.** Barruan orratzak zituzten saltxitxak agertu ziren Tabiran eta Santanosten, txakurrak pasiatzera eramaten dituzten guneeetan. Elkarretaratzea egin zuten Tabiran, txakurren kontrako erasoak gaitzesteko. Txakurren ordenantza-ren polemika sortu zen sasoiaren.



Goieneko kooperatiba, elektriken alternatiba

▣ **Berbaz** - DURANGALDEA

> **Ingurumena.** Goienerekin energia berriztagarrien kontsumoa bultzatzen du. Aitor Urresti kooperatibako kideak dioenez, “kontsumitzaileok nolako energia kontsumitu nahi dugun erabaki dezakegu”.



45. urtemuga ospatu dute Iremiñekoek

▣ **Herririk herri** - BERRIZ

> **Dantza.** Berrehun bat dantzari batu ziren Iremiñe dantza taldearen 45. urtemuga ospatzeko. 1969ko sanjoanetan sortu zen taldea, eta ordutik hona dantzan dabilen Jose Alberto Narbaizari eskerrak emateko aprobetxatu zuten ekitaldia.



Podemos-Ahal Dugu Durangaldera heldu da

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **Politika.** Podemos-Ahal Dugu alderdia Durangaldean ere zabaldu da. Ekainean osatu zuten lehenengo bider zirkulua, Durangoko Frai Juan Zumarraga institutuan egindako batzarrean. 50 bat lagun batu ziren, eta Neskutz Rodríguez bozeramaileak alderdiaren oinarriak azaldu zituen jendaurrean. Herritarrak dira, euren ustez, protagonistak, eta eskubide sozialen alde lan egin gura dute. Urrira arte barne prozesua garatu zuten.

Maiatzean egindako Europako Legebiltzarrerako hauteskundeak alderdiarentzat tranpolin bihurtu ziren. Bost eurodiputatu lortu zituen alderdi sortu berriak, eta erreferentzia mediatiko zein politiko handia ere bai.

30 urte bete ditu Iñurri eskaut taldeak

▣ **Berbaz** - DURANGO

> **Aisialdia.** Alberto Pérez Pastor *Periko* izan zen Iñurri eskaut taldearen sortzailea, Jesuitetan, duela 30 urte. Urteotako ibilbidea gogoratzeko, kanpamendua antolatu zuten asteburu batez Zuhatzola parkean. Iraide Donaire taldekideak azaldu zuten gazteak pertsona kritikoak eta autonomoak izatea gura dutela, eta euren hiru ardatzak formakuntza, gizartea eta fedea direla.



Japonian, errugbiaren bidez lagunak egiten

▣ **Akuilua** - DURANGALDEA

> **Munduan zehar.** Gorka Gerediaga berriztarra eta Paulo Berriozabal elorriarra Japonian bizi dira. Batera egiten dute lan, eta errugbian ere talde berean dabilta. Berriozabal japoniar bategaz ezkondu zen, eta Gerediaga oporretan zegoela bisitan joan zitaion. Lan aukera ikusita, gertzea erabaki zuen Gerediagak. Lagun ugari egin dituzte errugbia praktikatzan. Gustura bizi dira, momentuz Durangaldera bueltatzeko asmorik barik.



MALLABIKO UDALA

Tel.: 943 171 461
www.mallabia.eus





‘Zilarberritzen’, Plateruenaren etorkizuna erabakitzen

Ikasturte honetan Plateruenean garatu duten gogoeta prozesuaren emaitzak jendarteratu zituzten uztail hasieran

Herrikerri herri - DURANGO

> **Plateruena biziberritzen.** Durangoko Plateruena Kafe Antzokiaren proiektua berridazteko martxoan abian ipinitako parte-hartze prozesuaren emaitzen berri eman zuten uztaileko ekitaldian prozesua gidatu duten EHUko Parte Hartuz saileko kideek. Ekitaldi horregaz eman zuten *Zilarberritzen* gogoeta prozesua amaitutzat, eta ikasturte berria indarberrituta hasi zuten kafe antzokiak irailean. Kultur sortzaileek, herriko elkarteek eta

proiektuagaz bat egiten duten herritarrek berba edukiko dute aurrerantzean ere. Plateruena elkarteentzat eta sortzaileentzat elkargune izan behar duela, ikuspegi feministagaz emakumeen parte-hartzea bermatu behar duela eta musikaz gainera bestelako diziplinak integratzeko lan egin behar duela ere zehaztu zuten tailerretan euren iritzia eman zutenek. Ildo hori lantzen hiru lantalde dabilta: kultur programazioa

lantzen, sortzaileen beharrian eta proposamenak jorratzen, eta komunikazioan lan egiten. Hamar urte dira Berbaro elkartearen eskutik euskarazko kulturgintza sustatzeko helburuagaz antzokia sortu zutela, eta urriaren 31n jai handi batez ospatu zuten urteurren hori. Horregaz batera, Plateruenean bideragarritasun ekonomikoa ziurtatzeko, borondatezko lan eta diru ekarpen kanpaina abiatu zuten.



Iranen surfa sustatzeko proiektua abiatu dute

Kirolak - ELORRIO

> **Surfa.** Iranen surfa sustatzeko, *Surf Seeds* (surf haziak) proiektua martxoan ipini zuten Elorrioko Cross Culture Surf elkarteak eta Waves of Freedom elkarteak abuztuan. Profesionalen eskutik, besteak beste, surf eskolak eta itsasoan erreskatteak zelan egin ikasteko saioak eskaini zituzten Iranen. Helburu bi zituzten: surfa kirol erakargarria dela erakustea eta Irango ekonomiari zelako onurak ekarri ahal dizkion azaltzea.



McDonald's jatetxearen parean mobilizatu dira

Herrikerri herri - ABADIÑO

> **Elikadura.** Janari lasterra eskaintzen duen AEBetako McDonald's multinazionalak hanburgesategia zabaldu berrikan, jatetxearen parean, elkarretaratzea egin zuen uztailean EHNEk, Euskal Herriko Nekazarien Elkartasunak. Bertako nekazaritza eta abeltzaintza indartuko dituen politikak aldarrikatu zituen mobilizazio horretan: elikagaiak bertan ekoiztea ahalbidetuko duten politikak martxoan jartzea dela “inbertsiorik onena” azpimarratu du. Iazko urte amaieran ere, hainbat sindikatuk, gazte erakundek eta merkatari elkarteek deiturik, McDonald's eta Burger Kingen Abadiñoako jatetxeen irekieraren kontra mobilizazioak egin zituzten.

Eleizaldeko igerilekuak inauguratu dituzte

Herrikerri herri - ELORRIO

> **Azpiegiturak.** Uztailearen 3ko ate irekien jardunaldiagaz inauguratu zituzten Eleizaldeko kanpoko igerilekuak. Herritarrei doan sartzeko aukera eman zieten inaugurazio egunean. Baina, arazo teknikoak zirela medio, itxi egin behar izan zuten igerilekuak hurrengo egunean. Lau egunez egon zen itxita. Bildu kritikoa agertu zen proiektu hori gauzatzeko EAJren udal gobernuak izandako moduagaz.





AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA
www.amorebieta-etxano.eus
 946 300 002

**AMETX, KULTURA, EUSKARA
 ETA KIROL ZERBITZUAK**
www.ametx.eus



ZELAIETA
 946 300 650

ZORNOTZA UDAL EUSKALTEGIA
 946 732 026

ZUBIAUR MUSIKA ESKOLA
 946 301 510

ZORNOTZA ARETOA
 946 300 168

LARREA KIROLDEGIA
 946 732 714

Ez dago ezinezkorik



FORD FOCUS BERRIA

› Lagunduriko aparkatze sistema

Ikusi ere egiten ez diren lekuetan aparkatu daiteke? Ford Focus berriarekin posible da. Irudikatu ezinezko tokiak aurkitzen ditu, eta bertan aparkatzen du. Urrutira joaten lagunduko dizuten hainbat aukera ditu Ford Focus berriak; hau horietako bat besterik ez da.

ford.es

12.900€ edo 120€ hilean.

Sarrera 3.165€. Azken kuota 7.636€. 37 hilabete.

FORD KONDIA

Otaola etorb. EIBAR
Tel.: 943 207 650

ZIORLA AUTOAK

Santa Maña kalea, 19 IURRETA
Tel.: 946 815 135



ford.es

Ford Focus gama, batez besteko kontsumo konbinatua 4,2-tik 6,8 litro 100 kilometroko bitartera. CO2 emisioak 105etik 159 g/km-ra. EcoBoost motorrak %20raino hobetzen du kontsumoa ohiko gasolina motor baten aldean. Ford Focus Trend 1.0 EcoBoost Auto-Start-Stop 100 ZP (74 kW), 5 ate atzeko kristal-jasogailuekin eta lainotako argiekin. Eskaintzak barnean biltzen ditu: BEZA, IM, garraioa, promozio deskontua, Aport., kontzesioa eta deskontua FCE Bank plc S.E. Bankuaren 'Vente a Ford Credit Classic' kanpainaren bitartez finantzitzearen; gutxiengo iraunkortasuna 24 hilabete. Amaierako prezio 12.990,31€. Sarrera: 3.165€. Azken kuota: 7.636€. 37 hilabete. Zabalte kuota: 334,06€. TIN %9,73. Epeka prezio osoa 15.455,31€. Gobernuaren PIVE planaren afortazioari lotuta. Penintsulan eta Balearretan baliagarri hilabete amaierara arte. Beste doskontu batzuekin ez da bateragarria. Irudiko modeloak ez du zertan bat etorri eskaintzakoarekin.



'Partenoia'-ri solairu bat gehituko diote

▣ **Herririk herri** - ZALDIBAR

> **Hezkuntza.** Udaleko alderdi politikoen, guraso elkartearen eta irakasleen ordezkariak elkarrekin agertu ziren uztailean, eskolako Lehen Hezkuntzako eraikina konpontzeko Eusko Jaurlaritzagaz loturiko akordioaren berri emateko. Urtetako eskaria gauzatu, eta solairu berri bat altxatuko diote *Partenoia* izenez ezagutzen den eraikinari. Urtea amaitu orduko obra esleitu, eta 2015ean lanean hastea da asmoa. Solairu berriko obrak egin baino lehen, eraikinak sabaian dauzkan arrakalak, hezetasunak eta itoginak konpontzeko lanak egingo dituzte.

Herri-ola prozesuaren emaitzak azaldu dituzte

▣ **Herririk herri** - OTXANDIO

> **Politika.** Otxandiok etorkizunean hartu beharreko norabidea definitu zuten Herri-ola ekimenean parte hartu zuten herritarrek. Uztailearen 25ean ordura arteko lana laburbildu zuten, eta, herrigintza eta komunitate sentimendua oinarri hartuta, aurrera begirako erronkak azaldu zituzten Andikona plazako ekitaldian. Herritar talde batek sorturiko *Bagara eta bagoaz* film laburra ere estreinatu zuten. Bizi-kalitatea oinarri duen Otxandio erakitzeari zehaztu zuten jomugatzat.



Euskarazko tratua eskatu dio EHEk udalari

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **Mobilizazioa.** Udalaren eta herritarren arteko tratuan euskaraz bizi gura dutenen eskubidea ez dela betetzen kritikatu du Durangoko Euskal Herrian Euskarazek. Eskubide hori aldarrikatzeko dinamika abiatu zuen EHEk martxoan. Udalak euskaraz bizitzeko eskubidea aitortu arren, eskubide hori ez bermatzeko "aitzakia ugari" ipintzen dituela esan du EHEk.





Gazte saharaiak Durangaldean

▣ **Herririk herri** - IZURTZA

> **Elkartasuna.** Rio de Oro ekimenaren bidez, Tindufeko kanpalekuetan (Aljerian) bizi diren eta urritasunen bat duten hamar gazte Izurtzako aterpetxean izan ziren ekainetik abuztura. 8 urteko ume saharai bik gaixotasun larriak sendatzeko tratamendua jaso zuten horri esker: egunean hiru bider epilepsia krisiak zituen Raguia osasun tratamendua jasozuen, eta bihotzeko arazoak dituen Mohammedi ebakuntza egin zio-

ten. Sendatu arte Euskal Herrian egongo da Mohammed, baina gainontzeko haurrak abuztu amaieran itzuli ziren Saharara. Hainbat norbanakok sustatutako Rio de Oro egitasmoaren eskutik etorri ziren saharaiak bigarren urtez. Aurten egitasmoa asko sendotu dela azpimarratu zuten: iaz baino askoz boluntario gehiagok parte hartu dutela, eta datorren urtean ekimenagaz jarraituko dutela nabarmendu zuten.



“Familia txiki baten modukoa da Eibar”

▣ **Kirola** - ZORNOTZA


> **Futbola.** Historia egin du Eibar taldeak lehen mailara igota. Talde horretako mediku zuzendaria da Ostaiska Egia zornotzarra. Eibar taldea familia txiki bat dela azaldu zuen ANBOTOn, “oso etxekoa den talde bat da”. Orain, lehen mailan mantentzea izango dutela helburu aurreratatu zuten Egiak elkarrizketan.



Erdi Aroko hilerriko hamasei hilobi Legañon

▣ **Herririk herri** - BERRIZ

> **Arkeologia.** Oso ondo kontserbaturiko hamasei hilobi topatu zituzten abuztuko indusketetan, Legañon. Erdi Aroko hilerriaren 100 metro karratuko eremua azaleratu zuten, eta hilerri zaharraren ekialdeko muga ere aurkitu zuten. Bisita gidatuetan eman zuten aurkikuntzen berri.



Lara Izagirre, Zornotzan filma grabatu aurretxoan

▣ **Kultura** - ZORNOTZA

> **Zinema.** *Un otoño sin Berlín* bere lehen film luzearen grabazioari ekiteko aurreproduktzio azken lanetan zebilela eman zuen Lara Izagirre zornotzako zinegileak proiektuaren berri ANBOTOn. Urrian, bere herrian, Zornotzan egin zuen filmaren grabazio lana.



Egin Gabonetako errezeta Eusko Label produktuekin!





ERROTARITXUENA DURANGO

Errotaritxuena^{ren}
arrakastaren arrazoiak:

Finantzatzeko **ERRAZTASUNAK**
ASKOTARIKO tipologiak (1, 2, 3 eta 4 logela)
Terrazak etxebizitza **GUZTIETAN**
Mugarra alderako **BISTA** garbiak
Barneko **PLAZA** zabala
Auzoari **BURU EMATEA**
Gauzatzeko **URBANIZAZIO KARGARIK GABE**
SALTOKIAK eraikinetik oso gertu
Berdeguneak eta **LASAITASUNA**
ARRISKURIK GABEKO aukera

BALDINTZA BERRIAK KONTSULTATU



www.solvia.es Sabadell Guipuzcoano

B **S**

946 46 20 41
www.sukia.com



sukia Zure etxean zaude
Estás en tu casa



L.E.

Ines Etxegibel, DRTko gizonen entrenatzaile berria

Denboraldia bikain hasi zuen Durango Rugby Taldeko mutilen lehen taldeak entrenatzaile berriaren eskutik

📍 **Kirola** - DURANGO

> **Errugbia.** Ines Etxegibelek hartu zuen Durango Rugby Taldeko mutilen lehen taldearen ardura denboraldi hasieran. 14 urteaz hasi zen DRTn errugbian jokatzeko, baina urtetan kanpotik ibili da: Katalunian jokatzeko, eta Euskadiko eta Espainiako selekzioen hautatzaile, adibidez. Baina etxera bueltatu zen irailean, abentura berri batean sartzeko. Abentura ondo hasi zuen, denboraldi hasieran partidu asko irabazi zituelako taldeak.

Irailean egindako elkarrizketan azaldu zuenez, segituan, pentsatu barik esan zion baietz DRTko zuzendaritzaren proposamenari. “Ilusioa egiten dit hona etortzeak; jokalarik zein pertsona gisa hezi eta hazi naiz hemen. Erronka bat da, baina, daukaten filosofia ikusita, oso erronka erakargarria”, adierazi zuen. Ez da ohikoena izaten emakume bat gizonen talde bat entrenatzen ikustea. Apurka-apurka arlo horretan mugak

apurtzen dabiltzala uste du Etxegibelek: “Nire taldekoek ez dute eduki esperientziarik neska entrenatzaileekin, eta nik ere ez mutilekin. Baina kirol bera, pasio eta maitasun bera partekatzen baditugu, ahaztu egingo dugu eurak mutilak direla eta ni neska naizela. Entrenatzerakoan, errugbiaz pentsatzen dut, ez mutilengan edo neskean. Eta uste dut eurek ere gauza bera pentsatzen dutela. Gaitasun kontua da”.



Etxean kalamua edukitzeagatik atxilotuak

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **Marihuana kontsumo taldeak.** Ertzaintzak lagun bi atxilotu zituen Durangoko Kalebarrian, etxe bitan marihuana eduki, eta osasun publikoaren kontrako delitua egiteagatik. 370 marihuana landare, 400 kimu eta 250 gramo topatu zituzten etxe horietan. Etxe horiek Anboto marihuana kontsumo taldeak erabiltzen ditu. Taldeko presidente Iñigo Karretok azaldu zuenez, kontsumo taldea legeztatuta dago: “Autokontsumorako eskubidea dugula uste dugu, eta epai guztiek babesten gaituzte”. Kontsumitzaileen lau elkarte daude Durangon, eta euren jarduna erregulatzeko premiaz hitz egin zuen Karretok.

Nanukeko lan gatazka epaitegietan berriro

📍 **Herririk herri** - ELORRIO

> **Epaiketa.** Transportes Nanukeko lan gatazka jarraipena izan du aurten. 2013an egindako protesta eta grebaren ostean, epaitegietan prozedura bi izan dituzte; lan egutegiaren ingurukoa bat, eta grebako tentsio une baten ingurukoa bestea.

Epaiketa izan zuten irailean Nanukeko hiru langilek, greba sasoiaren gerenteak ustez “irainak eta erasoak” jasan zituelako. LABek eta ELAk deituta, protesta egin zuten, langileen arabera, akordioan geroko errepresaliarik ez egotea adostu zutelako. Hainbat bider artxibatu ostean, salaketa-gaz aurrera egin izana kritikatu zuten sindikatuek.



Trenbidea kentzeko obra lehiaketara atera dute

📍 **Herririk herri** - DURANGO

> **‘Durango operazioa’.** Eusko Jaurlaritzak lehiaketara atera du Durangoko trenbide zaharra eta trenen garajeak kentzeko obra. Aurtengo iraileko albisteetako bat izan da hori. Trenbidea eta elektrizitate sarea kentzeak milioi bat euroko gastua eduki du, eta tailerra eta garajeak botatzeko 550.000 euroko aurrekontua izan du.

Durango operazioa aldatu egin da hasierako planetik. Libre geratutako 62.000 metro karratuetan ez da ETSren egoitzarik eraikiko, eta luxuzko etxe dorreen egitasmoa ere ez da segurua. Aisialdirako gune bat egongo da, eta skate gune bat, anfiteatro bat eta parke bat hartuko ditu.



Gizarte arloko boluntarioen lana hizpide

Herririk herri - DURANGALDEA


> **Elkartasuna.** Egoera ekonomiko larrian dauden familiei laguntzeko hainbat ekimen sortu dira Durangaldean. Horietako bat da Acción Social Amorebieta. Herriko familientzat elikagaiak batu, eta banaketa koordinatzen du elkarrekin. Zornotzako 50 familia ingururi laguntzen diote elkarteak kideek, eta euren lanaren berri eman zuten iraillean argitaratutako erreportajearen. Elikagai Bankuaz gainera, sare sozialen bidez, familiei sortzen zaizkien behar materialak asetzeko kanpaina garatzen dute: Comparte Zornotza.

Elorrion ere martxan dago herritarrentzako Elikagai Bankua. Irailean sinatu zuten udalak, Eroskik eta Kainaberrak janari banaketa egiteko hitzarmena. Udalak eta Eroskik sostengu ekonomikoa ematen diote ekimenari, eta Kainaberako boluntarioek egiten dute banaketa.

Kanposantua hilerrien lehiaketako finalean

Herririk herri - IURRETA

> **Hilerri lehiaketa.** *Adiós* aldizkariak hilerri onenaren lehiaketarako finalista hautatu du Iurretako hilerria. Ángel Basabe arkitektoa: “Tristura momentu batean inguruak lagundu zaitzakeela pentsatu nuen”.



Mariano Estudillo, antzerkiko handiekin

Kultura - DURANGO

> **Antzerkia.** Madrilera (Espainia) 19 urte-gaz joan zen Mariano Estudillo aktore durangarra. “Lan honetan aritzeko irrikaz dagoen jende mordo ezagutu dut, eta antzerki maisu handiak ere bai”.



Boluntarioak hezkuntza sistemaren parte

Herririk herri - OTXANDIO

> **Hezkuntza.** Otxandioko eskolak deialdia egin zuten iraillean herritarrei Ikas Komunitateak izeneko irakaskuntza metodologian parte hartzeko. Boluntarioek matematika saioak dinamizatu zituzten Lehen Hezkuntzako eskoletan.

Sare ekimenaren aurkezpena Elorrion

Herririk herri - ELORRIO

> **Presoen sakabanaketa.** Sare ekimenak herriz herri aurkezpenak egin ditu aurretik. Elorrion, Ferixa Nausikoak amaitu eta lasterrera egin zuten aurkezpena, Sarearen irudiagaz mosaikoa eginda. Sarean oinarritutako mugimenduaren lehen erronka sakabanaketagaz amaitzea da.



HIRURAK BAT

ATXONDOKO UDALA · Tel.: 946 821 009 · www.atxondo.net



Arrazolako eskola zaharrea, zer?

✚ **Herririk herri** - ATXONDO

> **Eskola zaharra.** Arrazolako auzokideek eskola zaharrena erabilera publikoa aldarrikatu dute. Eraikina Anbotope elkartek okupatzen du; berez, udalagaz izan duen alokairu kontratua amaituta dagoen arren, bertan jarraitzen du.

Eskola zaharrena erabilpenegatik auzitegietan ibili dira Atxondoko Udala eta Anbotope elkartea, eta aurten Bizkaiko Probintzia Auztiegiak udalari arrazoi ematen dion ebazpena argitaratu du, eta lokala libre uzteko eskatu die auzitegiak Anbotope elkarteko kideei.

Arrazolako hainbat auzokideek eskola zaharrena erabilera publikoa eskatzeko argazkia atera zuten andramarientan. Irailean gaiari buruz eztabaidatzeko kanpaina hasiko zutela iragarri zuten.

Eskola zaharreko eraikina hutsik geratzen bada, bertan zer egitea komeni den aztertu gura dute auzokideek. Ideien artean daude Herriko Taberna, jubilatuentzako txoko bat, aterpetxe bat eta bertako baserriarren produktuak saltzeko denda txiki bat sortzea.



Emakumeen UCI mailako taldea sortu dute

✚ **Kirola** - DURANGALDEA

> **Txirrindularitza.** 2015eko urtarriletik aurrera emakumeen UCI mailako taldea izango du Iurretako Emakumeen Bira Ziklismo Kirol Elkarteak. BZK ProBasic izango du

izena, eta Euskal Herriko elite mailako hirugarren taldea izango da, gaur egun dabil-tzan Bizkaia-Durango eta Loitek taldeekin batera. Eneritz Iturriaga txirrindulari ohi abadiñarra izango da taldeko zuzendaria eta Humberto Gómez ordezkaria. Iturriagak dioenez, "inplikazioa erabatekoa da, eta buru-belarri gabilta lanean".



Itxuroso egoteko hainbat gomendio

✚ **Akuiua** - DURANGO

> **Moda.** Estefania Uriarte durangarra ETB1eko *Itxuroso* programan irudi aldatketak proposatzen ibili da. Moda, joerak, bisajismoa, estilismoa... Arlo horretan dihardu Bilbon duen estudioan. Jon Kortajarena modeloagaz eginiko lan baten inguruan ere hitz egin zuen ANBOTOrri eskaintako elkarrizketan.



Victor Arrizabalagaren erakusketa Gasteizen

✚ **Kultura** - MAÑARIA

> **Artea.** Victor Arrizabalaga artista mañariarrak erakusketa inauguratu zuen Gasteizko Sancho el Sabio fundazioaren egoitzan, irailean. Memoriaren inguruko gogoeta proposatu zuen Arrizabalagak erakusketa horretan: liburuetan eta irudietan dagoen memoriaz hausnartu zuen.



Mallabiko mendi duatloia, jai giroan

✚ **Kirola** - DURANGO

> **Duatloia.** Mendi duatloia-aren laugarren edizioa antolatu zuten irailean, Mallabian. Aurten proba zapatutik domekara aldatzea erabaki dute, kirol probaren inguruan, herrian jai giroa sortu guran.



Barloworld enpresan kaleratzeak izan dira

✚ **Herririk herri** - ZORNOTZA

> **Lana.** Barloworld Finanzaauto enpresak estatu osoan zehar banatutako fabriketako langileek akordioa adostu zuten irailaren amaieran. Akordioaren arabera, 177 behar-rean 71 langile kaleratu zituzten. Tartean, zornotzako lantegiko hiru langile.



Frackingaren kontrako 4.166 sinadura

► **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **Herri ekimen legegilea.** Durangaldeko Fracking Ez plataformak 4.166 sinadura batu ditu frackingaren debekua eskatzen duen herri ekimen legegilea babesteko. Frackingaren kontrako mugimenduak irailaren 13an aurkeztu zituen, Eusko Legebiltzarrean, EAEko hiru herrialdeetan batutako sinadurak. 103.589 pertsonen babesa eduki zuen herri ekimen legegilea, plataformako kideek esperotako kopurua baino hiru bider gehiago.

Abenduaren hasieran, frackingari buruzko eztabaida udaletxeetara eramateko ekimena jarri zuten martxan. Horrela, Mañariko, Iurretako, Otxandioko eta Durangoko udalbatzarrek fracking bako herri izendapena onartu zuten. Izan ere, Durangaldean frackingaren inguruko azterketak egiteko Lore, Saia, Mirua eta Sustrai baimenak daude emanda.

Gaztagile gaztea Zornotzan lanean

► **Akuilua** - ZORNOTZA

> **Elikadura.** Gazta eta jogurt ekoizpenerako behar duen guztia etxean bertan du Kepa Agirregoikoak. 40 ahuntz, lau behi eta, batez ere, lanerako gogoia ditu baserriar gazte honek.



Auto-stop ohitura desagertzeaz?

► **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **Mugikortasuna.** Durangaldean oraindik ere bada auto-stop egiteko ohitura mantentzen duenik. Iker Solanak eta Eneko Iraetak auto-stop eginda bidaiatu dute Italiara.



Munduko Saskibaloi Txapelketan lanean

► **Kirola** - DURANGALDEA

> **Saskibaloia.** Munduko Saskibaloi Txapelketako C multzoko partiduak jokatu zituzten irailean, Barakaldoko BECen. AEBetako jokalaria izan ziren bertan, adibidez. Durangaldeko hainbat boluntariok ere jardun zuten antolakuntzan.

Bidegorria Aramotz auzora helduko da

► **Herririk herri** - DURANGO

> **Mugikortasuna.** Durangoko bidegorria beste fase batean sartu da. Izan ere, ikasurte honetan Aramotz auzora helduko da. Herrian hamaika kilometroko sarea dago eraikita, eta 2020. urterako 22 kilometroko zirkuitua eraiki gura dutela aurreratu zuten udal ordezkariak.



EREDU HIRUELEDUNA
MODELO TRILINGÜE
TRILINGUAL EDUCATION

JESUITAK
Durango
San Jose Ikastetxea

ISO 14001:2004
ISO 9001:2008

Kurutziaga, 1 - DURANGO
Tel.: 94 681 00 50
sanjose@durangojesuitak.org

Kudeaketaren
Kualitatearen
Eusko Sariak
2013
Premio Vasco
Calidad
de Gestión

www.durangojesuitak.org



Gazteek Correosen eraikin zaharreen bildu gura dute

'Bagoaz gure espazio bile' dinamika aurkeztu zuten, eta Durangoko Udalarari espazioa eskatu zioten

Herririk herri - DURANGO

> **Gazteak.** Udaletxe aurreko plazan hainbat gazte elkartu ziren, urrian, prentsaurrekoa eskaintzeko. Gazteen premiak asetzeko herrian espazio bat behar dutela adierazi zuten, eta Aitziber Irigoras alkateari eskaera zuzena egin zioten. Udaletxe aurrean dagoen Correosen eraikin zaharra gazteentzako gune izatea gura dute. Hurrengo egunetan, eskaera ofiziala sartu zuten udaletxean. Gazteek jendaurrean azaldu zuten, batzarretan

batu izan dira, eta bilgune horietan ondorio horretara heldu dira. Espazio bat behar dute harremanak izateko, aisialdi kulturalerako eta gura dituzten proiektuak garatzeko. "Kulturarekiko ikuspegi zabala bultzatu gura dugu, pertsonen eta taldeen ahalmen soziala eta sortzaila sustatzeko", azaldu zuten. Gainera, auzolanean eta era kolektiboan sortu gura dute gazteei zuzendutako eredu berria. Azaldu zuten sentsibiltate eta iritzi

askotako gazte talde batek diharduela proiektu honetan.

Hainbat leku aztertu dituzte

Gazteen esanetan, hainbat leku publiko aztertu dituzte, eta Correosen eraikina iruditu zaie aproposena. Tamaina egokia, kokaleku zentrikoa eta jabetza publikokoa izatea, eta urte askoan erabilerak publikorik eduki ez izana dira aukera horren alde egitera bultzatu dituenak.



San Fausto berritzeko plana martxan da

Herririk herri - DURANGO

> **Hirigintza.** Udalak martxan ipini du Berritu San Fausto plana, eta horri esker urbanizazioagaz lotutako hainbat obra eroango ditu aurrera. Baina bertako aisialdi eta ekintza sozialetarako bilgune behar zuen gizarte etxea ez dute eraikiko. Horretarako aurreikusitako diruagaz urbanizatuko dute auzoa. San Fausto Berria auzo elkarteko Txus Diezek dioenez, "auzokideek ez dute sinesten, utopia bat saltzan dabilzala uste dute".



Barraskiko etxebizitzaren arazoa irtenbide barik

Herririk herri - ATXONDO

> **Etxebizitza.** Barraskin urteak daroaz geldi bost eraikin eta 52 etxebizitza aurreikusten dituen proiektuak. Krisia heldu zenean, Norvisa promotoreak eraikuntza bertan behera utzi zuen, eta hainbat kalteu eragin zituen. Tartean, etxebizitzetarako sarrera ordaindu zutenak eta udala bera. Oraindik 300.000 euro zor dizkio Norvisa promotoreak udalari. Bitartean, iaz gazte batzuek etxe huts horietako bat okupatu zuten. Abuztuan, Norvisak salatu egin zituen, eta lau gazte identifikatu zituzten. Urriaren hasieran lau gazteek epailearen aurrean deklaratu zuten. Azaldu zuten, "arazoa konpontzeko pausoak ematen badira, ez dugu trabarik jarriko".

Ameriketatik Zornotza saskibaloiaz gozaraztera

Kirola - ZORNOTZA

> **Saskibaloia.** Sasa Borovnkak (Serbia, 1989), Juan Coronado (Venezuela, 1990) eta Tre Bowman (AEB, 1991) jokalariek Zornotza Saskibaloia Taldearen aurtengo hiru fitxaketa dira. Hiruiek Estatu Batuetako unibertsitateen NCAA ligako lehen mailan jokatu dute. Bowman eta Coronado hortik etorri dira. Borovnjakek ibilbide luzeagoa du, eta iaz ACBko Herbalife Gran Canaria taldean jokatu zuen.





Samina elorriar gazte bat lan istripuan hil ostean

Herririk herri - ELORRIO

> **Lan istripua.** Metal Smelting enpresan (lehengo San Eloy galdategia) lanean zebilela, bizia galdu zuen Endika Ruano 30 urteko gazte elorriarrak irailaren 30ean. Makinak harrapatu zuen, eta ezin izan zuten ezer egin gaztea salbatzeko. Lan-kideek eta lagunek deituta, mobilizazioa egin zuten urriaren 4an, Elorrion. *Betiko gure bihotzean. Lan istripu gehiago ez leloa zeroian pankarta batek, eta Prekarietatea hiltzailea* beste batek. LAB sindikatuaren ustez, istripua saihestu zitekeen. Udalak dolu eguna deitu zuen.

Durangoko euskalgintza jaietako protagonista

Herririk herri - DURANGO

> **Txupinazoa.** San Fausto jaietako protagonista izan dira aurten euskalgintzan diharduten hainbat eragile. Guka mugimendua osatzen duten EHE, AEK, Berbaro elkarteak, ANBOTO astekaria, Plateruena eta Ibaizabal ikastola izan dira txosnetako txupinazoa jaurtitzeko ardura izan dutenak. EHEk 35 urte egin ditu aurten eta Berbarok 25. Euskararen erabilera bultzatzeko euskal guneak bultzatzea da Gukaren helburua. Txupinazoa botatzea ohorea dela, eta bakoitzak bere aldetik zein elkarlanean egindako lanarekiko esker on keinu bat dela azpimarratu dute.



Auzokideak haserre karkabak direla-eta

Herririk herri - DURANGO

> **Karkabak.** Jaiekin batera, Durangon karkaben inguruko eztabaida piztu zen. Alde Zaharreko auzokideen elkarteak azaldu zuenez, taberna batzuek karkabak biltegi gisa erabili zituzten Goienkaleko jaietan. Karkabak etxe askoren larrialdi irteera direnez, erabilera hori arriskutsua dela esan zuten auzokideek. Gainera, Dendak Bai elkartearen eskariari erantzunez, sanfaustoetan karkabak biltegitzat erabiltzeko baimena eman zien udalak tabernei.

Zarionak
eta urte berri on!

Txelu Angoitia



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

www.durango-udala.net






Iurretako dantzariak

Sasoi berriak Urrijena jaian

▣ **Herririk herri** - IURRETA

> **Jai.** Urrijena Iurretako dantzarien jaija aldaketa nabarmenekin ospatu dute aurten. Egungo Urrijenako batzordeak emakumeei ere parte hartzeko deia luzatu die aurten. Eta deiak arrakasta izan du: ehun emakume inguruk parte hartu dute, lehen aldiz, Urrijenan. Sanmigeletan mutil eta neska dantzarien presentzia berdindu ostean etorri da Urrijena parekidea. Emakume batzuek dantzan egin dute, eta nagusienek kalejiran edo kantuan parte hartu dute. Festa eguna ilusioz eta emozioz igaro

dute iurretarrekin. Dantzen eta omenaldien ostean, bazkarian elkartu dira lehengo eta oraingo dantzariak.

Dantzarien datu-basea

Emakumeei Urrijena jaian parte hartzeko deia egiteaz gainera, andre dantzarien datu-basea egiten hasi da aurten dantza taldea. Gizonezkoena eginda egon da, eta andrazkoena falta zen egiteko. Artxiborako datuak eta argazkiak batzea izan dela asmoa azaldu dute batzordean jardun duten arduradunek.

Faustegoienako etxeen bazkideak zain

▣ **Herririk herri** - DURANGO

> **Etxebizitza.** Krisiaren ondorioz Faustegoienako etxebizitzaren proiektuak atzerapena izan du. Etxeak kooperatiba erregimenean hartu zituzten bazkideak obraren esperoan daude. Izan ere, eraikitzen hasteko beharrezkoa den salmenten %90 ez da lortu oraindik. Zozketa egin zuten, baina ez zituzten etxe guztiak saldu. Promozioa Bizkai osora ere zabaldu zen, baina gauza bera gertatu zen. 111 uko egon dira. San Rokeko promozioari dagokionez, 298 uko egon dira. 2012an hasi ziren 144 etxeak eraikitzen, eta hogeitabat salgai daude.



Garai ingurua, margolari baten begiradatik

▣ **Herririk herri** - GARAI

> **Arte.** Javier Fernández Paiz bilbotarra Garain izan da hainbat egunetan, herriko irudiak koadroetan islatzeko. Abuztuan ere egun batzuk igaro zituen bertan. Ikasturtea Madrilen eman ostean, udan Garaira joan, eta "aldaketa erradikala" izan zela aitortu du. Beste margolari batzuek ere aurretik bizi izan dute esperientzia hori.



Athleticen bere lekua egin gura dabil Etxeita

▣ **Kirola** - ZORNOTZA

> **Futbola.** Cartagenan eta Elxen jokatu ostean, Athleticera itzuli zen iaz Xabier Etxeita (Zornotza, 1987) jokalaria. Aukera gutxi izan ditu jokatzeko, baina izan dituenak aprobetxatu ditu. Aspaldi izan ez dituen sententzioak edukitzen dabilela aitortu du ANBOTOk eginiko elkarrizketan.



Mendi probetako plastikoak nonahi

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **Ingurumena.** Mendi probetan ibilbideak markatzeko erabiltzen diren plastikoak ugaritu egin dira, probak amaitzean ez direlako batzen. Hori salatu dute Zigor Iturrieta korrikalariak eta Zaldai taldeak.



Mintzodromoa antolatu dute lehenengoz

▣ **Herririk herri** - DURANGALDEA

> **Euskalgintza.** Durangaldeko Berbalagun egitasmoak Plateruenean antolatutako mintzodromoak 150 lagun batu zituen, urrian, goizeko txandarako. Hainbat ikasketxe zeuden gonbidatuta. Arratsaldeko txandak ere arrakasta handia izan zuen.

Gazteek berdintasunaz duten iritzia jaso dute

Herririk herri - ZORNOTZA

> **Ikerketa.** Zornotzako Udaleko berdintasun Sailak azterketa bat egin du, Zornotzako gazteek gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna zelan baloratzen duten jakiteko. Ikerketa 15 eta 29 urte arteko gazteei zuzenduta dago, eta urrian eta azaroan garatu dute. 300 galdetegitik gora egin dituzte. Informazioa hainbat bidetatik jaso dute: gazteei aurrez aurreko galdetegia egin diete, eta baita gazteekin diharduten eragileei ere. Horretaz gainera, webgunean ere informazioa jasotzeko bidea zabaldu dute.



Kanpandorreko oinarria indartzeko obrak

Herririk herri - MALLABIA

> **Konponketa.** Jasokundeko elizaren kanpandorra aldamiotz inguratuta egon zen urrian. Izan ere, irailaren erdian lanekin hasi zirenetik, kanpaiari eusten dion oinarriaren egitura indartzen ibili zen apezpikutza. Tximistorratza eta erlojua konpontzeko ere baliatu zituzten lan horiek.

Era berean, Mallabiko Udalak aspaldi proposatuzion parrokiari elizaren beheko aldean dagoen lokala konpontzea eta publikoari zabaltzea. Urtarrilean ahoz eta idatziz egin zuen eskaera udalak. Espazio hori aterpe gisa erabiltzea da helburua.



62 saltoki ixteko arriskua ikusten dute

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Merkataritza.** Durangaldean 106 lanpostu galtzeko eta 62 saltoki ixteko arriskua ikusten dutela jakinarazi zuten urrian sindikatuek eta merkatariek. ELA, LAB, CCOO eta UGT sindikatuek, Bizkaidendak eta Euskaldendak merkatarien elkarteek, eta EKA zein EKE kontsumitzaileen elkarteek zabaldu zituzten datu horiek Durangon emandako prentsaurrekoan. Bilboko ordutegien liberalizazioak gainerako herrietan ere eragina izango duela adierazi zuten. Mozioa aurkeztu zuten Durangaldeko udaletan.

IURRETAKO UDALA

Tel.: 946 201 200
www.iurreta.net





Elkarbizitarako borondatea

▣ **Berbaz** - OTXANDIO

> **Andikonako Foroa.** Otxandion, elkarbizitarako pausoak emateko asmoz, Andikonako Foroa sortu zuten. Eta, topagune horretan egindako hausnarketak herritarrekin partekatuzko helburuagaz, egitaraua antolatu zuten azarorako. ANBOTOk Dolores Uribe, Jose Ignacio López de Letona, Amaia Lasuen eta Juan Luis Orobengoa zinegotzi ohiak elkarrizketatu zituen. Azaldu zuten, hautetsien arteko ezinikusiak konpon-

tzea da foroaren asmoa. Antolatu dituztenekimenen artean, Rosa Rodero ETAK hildako Joseba Goikoetxea ertzainaren alarguna eta Joxe Agirre hemezortzi urtez kartzelan egon den presoaren arteko solasaldia nabarendu zuten denek. "Momentu batean nire baitan pentsatu nuen zein gutxi egiteko kapaz garen, horrek petsona biak, hain desberdinak izanda, hain argi elkarri begiratzeko gai badira", esan zuen Uribek.



Andeka Gorrotxategi operaren gailurrean

▣ **Kultura** - ABADIÑO

> **Opera.** Madrilgo, Erromako, Sidneyko zein Pekingo agertokietan opera abestu eta gero, Andeka Gorrotxategi abadiñarrak Andra Marian eman zuen kontzertua, azaroran. Bere hurrengo erronka Salzburgon (Austria) izango du, opera jaialdi garrantzitsu batean.



Kirol arloan ere gizarteratzea lantzen

▣ **Kirola** - DURANGALDEA


> **Gizarteratzea.** Gasteizko Escor Gaztedi Rugby Taldeko gizarteratze taldea Elorriora etorri zen azaroran, herriko rugby taldeak gonbidatuta, bere esperientziari buruz jardutera. Era berean, Geu Be elkartearen areto futbol taldeak liga hasi zuen.



Arriaundi pastelgintzako bost langile kaleratuta

▣ **Herririk herri** - IURRETA

> **Lana.** Arriaundi SLko zuzendaritzak bost behargin kaleratu zituela salatu zuen LAB sindikatuak azaroran. Pastelgintza arloan ordezkari duen sindikatuak subrogazioa eskatu zuen, behargin guztiak okintzara orain arteko baldintzekin pasatzeko. Hala ere, hamar subrogatu zituzten.



2 euroan salgai

Durangaldeko egutegia salgai Ohiko saltokietan

ABADIÑO · ATXONDO · BERRIZ · DURANGO · ELORRIO · GARAI · IURRETA · MALLABIA · MAÑARIA · OTXANDIO · ZALDIBAR · ZORNOTZA

@anboto

Anboto komunikabideak

2015
Durangaldeko egutegia

anboto komunikabideak

BESTE ALDE



rent a car

**Ibilgailuen
alokairua**

www.bestealde.com

☎ 618 88 12 42

Gertu gaude zu urrun eramateko



› Oporrak



› Mudantzak



› Bidai luzeak



› Asteburua



› Lana

- ✚ Euskadiko aireportu eta hoteletan hartu-uzte zerbitzua
- ✚ Gehigarri ezberdinak: elur-kateak, umeen-aulkiak, GPSak, esku libreak...
- ✚ Tarifa bereziak epe luzeko alokairurako.

BULEGOAK › IURRETA › BILBAO › IRUN › EIBAR › VITORIA-GASTEIZ



Pobreziaren beste aurpegia

Herririk herri - DURANGO

> **Pobrezia energetikoa.** Pobreziaren beste aurpegi bat dabil azaleratzen azken urteotan: pobrezia energetikoa. Gasa, argia edo bero sistema ezin ordaindu, eta familia askok ezin dituzte oinarrizko hainbat zerbitzu jaso. Arazoak dituzte janaria prestatzeko, garbitzeko edo neguan berotzeko. 2012ko datuen arabera, Bizkaian, Gipuzkoan eta Araban biztanleen %4k sufritu zuen arazo hau: 90.000

herritarrek hain zuzen. Durangaldeari lotuta, momentuz daturik ez dagoen arren, familia askok arazo horri aurre egin behar izan diote. Egoera horren aurrean, JAED elkarteak 6.000 euroko diru poltsa prestatu du energia jasotzeko arazoak dituzten familientzat. Bonu formatuan banatu dituzte laguntzak. 2013an JAEDek eta Caritasek, guztira, 619 familiari lagundu zieten.



Aparkatzeko araudi berrira ohitzen

Herririk herri - IURRETA

> **Aparkalekuak.** Azaroaren hasieran ekin zioten Iurretan aparkatzeko araudi berria aplikatzeari, Iurretatik kanpoko jende askok kotxea herrigunearan uzten zuela irizita. Iurretarrek, orain, beraientzat gordetako aparkalekuak dituzte: Tellituko aparkalekua eurentzat da, eta Zubiaurre eta Bidebarrieta kaleetan egoiliarrentzako plazak daude. Doako TAO sistema ere ezarri dute. Dagoeneko 200 iurretarrek egoiliar txartela eskatu dute.

Banskyren jarraitzaile bat kontraesanaren bila

Kultura - IURRETA

> **Kale kultura.** Jose Manuel Lujanbio Txirrita hip hop kantari? Sabino Arana emakume eta biluzik? Mikel Goñi pernil bategaz? Iurretako Dantzari auzunearan inguruan Bansky artistaren jarraitzaile batek egindako grafitiak dira horiek. Egi-leak, ANBOTOn azalpenak eman arren, anonimotasunean gelditu gura izan du. "Euskal kulturako pertsonaiei eta mitoei kontraste bat atera gura diet", azaldu du.



Frades Espainiako Txapelketan garaile

Kirola - IURRETA

> **Triatloia.** Distantzia Luzeko Espainiako Triatloi Txapelketa irabazi du aurten Gurutze Fradesek, bere ibilbidean laugarrenez. Distantzia luzean indartsuena dela erakutsi du beste behin iurretarrak. Igerian eta bizikletan ez da onenen artean ibili, baina ez du etsi, eta korrikako tartean erakustaldia eskaini du.



150.000 euro zertan gastatu erabakitzen

Herririk herri - BERRIZ

> **Inbertsioak.** 2015eko inbertsioen zati bat nora bideratu erabakitzeko, bi foro egin dituzte Berrizen. Bata, herriguneko inbertsioei dagokie, eta bestea, auzoetako inbertsioei buruzkoa izan da. Guztira 150.000 euro bideratu dituzte.



Movember, minbiziaren kontrako ekimena

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Osasuna.** Prostatako eta barrabiletako minbiziaren kontrako Movember mugimendua hazten dabil. Aurten Movember Durangaldea taldea sortu dute. Eta bibotedunen festa ere antolatu dute.



Etxeko gaixoen zainzaileak zaintzen

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Osasuna.** Mendekotasuna daukaten pertsonen zainzaileei lagundu, eta eurak hezteko Zaindu programa sortu zuten Amankomunazgoak eta Durangoko Udalak 1997an. Egitasmo horren barruan ardura banaketa bultzatzeko kanpaina abiatu zuten azaroan. Farmazietan 1.000 poltsa banatu zituzten amu legez. 2014an, uztailean arteko datuak kontuan hartuz gero, 106 pertsonak hartu dute parte ikastaro eta tailerretan. Era berean, Zaindu programak udal egoitzan duen bulegoan 73 kontsulta egin dituzte. Belén Alonso Zainduko psikologoa azaldu zuenez, mendekotasun egoera aldatu egiten da denboragaz, eta egokitu behar horrek es-tresa sortzen du zainzailearengan.

Gerediaga-Elorrioko zubi luzeena amaituta

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Herrilanak.** Gerediaga-Beasain autobideko obrek aurrera jarraitzen dute. Gerediaga-Elorrio zatiko tunelik luzeena, 1.141 metrokoa, zulatzen amaitu dutela aitzakia hartuta, prentsaurrekoa eman dute obretan. Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusiak aurreratu duenez, 2016rako obrak amaitzea espero dute. Bestalde, Gazteluko auzokideek obren eragina salatu dute, kamioien joan-etorriak eta ezta-dak desorduetan izaten direlako.



Huertatarren ametsa errealitate bilakatu da

Herririk herri - MAÑARIA

> **Museoa.** Enrike Huertak 50 urtean imaginatutako Hontza natur zientzien museoak Mañarian zabaldu ditu ateak. Familia proiektu bat izan da, erakundeen laguntzarik jaso barik. Leire Huerta alabak proiektu honen garapenean zerikusia handia izan du. Azaroaren 24an inauguratu zuten museoak, Mañarian, *Kirikiño* idazlearena izandako etxean, udaletxearen aldamenean.



MAÑARIKO UDALA

946 818 998
www.manaria.org

PARISO DE LUSITANIA
1877 KIRIKINOI 1827



Genero indarkeriaren kontrako mobilizazioak

Mari Luz Alejo eta Amelia Rodríguez ama-alabak hil izana aitortu zuen Benito Quintairos senar eta suhiak

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Genero indarkeria.** Abenduaren 10a egun beltza izan zen Abadiñon. Goizeko 08:00etan Atxondoko Zuhaitz enpresan sute bat sortu zen, eta barruan Benito Quintairos jabeetako bat lotuta topatu zuten beharginek. Senitarteko bat gertaera horren berri emazteari ematera joan zenean, hilda aurkitu zituen Mari Luz Alejo eta Amelia Sardón ama-alabak, Traña-Matienako etxean. Egun osoan gertatutakoa argitzen jardun eta

gero, Quintairosek bi emakumeak hil izana aitortu zion Ertzaintzari. Hainbat mobilizazio antolatu zituzten Abadiñon, hilketa salatzeke. Abenduaren 12an, milaka lagunek Traña-Matienako kaleak zeharkatu zituzten *Emakumeon aurkako indarkeriari aurre egin* lelopean, Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxa plataformak deituta. Hainbat elkartet, erakundek eta sindikatuk deialdiagaz bat egin zuten.

Kasu gehiago

Durangoko Udalak azaroaren 25ean, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunean, eza-gutarazi zuenez, 2014an 30 emakumek salatu dute indarkeria matxista. Kasu horietako batzuk publiko egin ziren: San Fausto egunean emakume batek jasan-dako eraso, esaterako. Abadiñon beste kasu bat salatu zuten urrian, eta manifestaziora deitu zuten Txanporta plazan.



Bizkaibusi ongietorria Izurtzan eta Mañarian

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Mugikortasuna.** Hainbat urteko eskaeren ostean, abenduaren 15ean heldu zen Bizkaibus autobus zerbitzua Izurtzara eta Mañarira. Zerbitzu hori ez zuten Bizkaiko herri bakarrak ziren. Bilbo-Durango linearen luzapen bat da. Beraz, herri biak Durangogaz eta Bilbogaz lotu zituzten. Elorrion, berriz, Galdakaoko ospitalera zuzenean joateko aukera jarri zuten. Garain, ostera, autobus zerbitzua kendu, eta taxi zerbitzua jarri zuten.



Plan Orokorra galdeketa bidez osatu dute

Herririk herri - MAÑARIA

> **Hirigintza.** Azaroaren 21ean eta 23an HAPO Hiri Antolamendurako Plan Orokorri buruzko herri galdeketa egin zuen udalak, eta azaroaren 28ra arte iritzia emateko aukera eskaini zuen. Guztira, 92 lagunek hartu zuten parte galdeketa. Duela urtebete hasitako partaidetza prozesutik sei alternatiba posible atera ziren. Herritarrek B ereduaren alde egin zuten, etxe gutxien jasotzen zituen ereduaren alde. Zerbitzu kulturala eta soziala eskaintzeko ekipamenduei dagokienez, etxeen azpiko lokaletan bi gune sortuko dituzte, eta beste handiago bat herrigunean. Beste espazio publiko bat ere jaioko da ekipamendu horren inguruan.

Bigarren erizaina larrialdietarako

Herririk herri - DURANGO

> **Osasuna.** Durangoko arreta jarraituko gunean bigarren erizain bat egon dadila eskatu zuen Eusko Legebiltzarrak hil hasieran. Beharginen eskaera kontuan hartu, eta testu bat adostu zuten PSE-EEk eta EH Bilduk; Ppk babestu egin zuen. Beharginek apirilean sinadura bilketa egin zuten, baliabide gehiago eskatzeko. Erizain bakarra izanik, horrek irteeraren bat bazuen, zerbitzu hori barik gelditzen ziren.





L.E.

150.000 lagun batu dira 49. Durangoko Azokan

Kultura - DURANGO

> **Euskararen plaza.** Helburuak beteta, Gerediaga Elkartek 49. Durangoko Azokaren balorazio positiboa egin du. Egun euritsuak izan diren arren, 150.000 bisitari izan ditu aurten azokak. Aurtengo nobedadeen artean, autoekoizleen plaza eta gogoetaren plaza nabarmendu dituzte antolatzaileek. Bi egitasmoek erantzun oso ona izan dutela diote. Durangoko Azoka osatzen duten guneetako arduradunak ere pozik agertu dira aurtengo egitarauak izan duen harreragaz.



T.A.

Nerabeak eta mendekotasun berriak

Herririk herri - DURANGALDEA

> **Prebentzioa.** Amankomunazgoko Droga-mendekotasunen Prebentziorako Sailak galdetegi berezia landu du aurten, ikastetxeetan. Kontuan hartu du teknologia berriak mendekotasun bihurtzeko arriskua, eta nerabeek mugikorra eta txata erabiltzeko duten ohitura ezagutu gura izan du. Horrela, prebentziorako programak diseinatuko ditu, besteak beste, ikastetxeen eta gurasoen partaidetzagaz.



Elorrioko euskara, liburuan eta sarean

Herririk herri - ELORRIO

> **Euskara.** Azken urteotan Elorrioko euskara ikertzen jardun du Badihardugu euskara elkarteak, hainbat elorriarren laguntzagaz. Liburuaren oinarri nagusiak Elorrioko Ahotsak ekimeneko elkarrizketak eta herriko toponimia dira. Iturrin dago salgai liburua, eta, gainera, <http://elotop.net/euskara/> webgunetik deskargatu daiteke. Bideoak ere badaude ikusgai.



ZALDIBAR
Elizateko Udala

ZALDIBAR
ELIZATEKO UDALA
Tel.: 946 827 016
www.zaldibar.org



jaietan
euskaraz

kiroletan
euskaraz

gure!
arteana!
euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz.**



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia